

John Holloway

Kapitalaren aurka eta haratago. Eztabaida ireki bati buruzko gogoetak

Hitzaurrea: Raúl Zibechi

(Jatorrizko testuak: *Contra y más allá del Capital. Reflexiones a partir del debate sobre el libro "Cambiar el mundo sin tomar el poder"*. Coedición Universidad Autónoma de Puebla, México y Ediciones Herramienta, Buenos Aires, Argentina, 2006)

Lehen edizioa, 400 ale

2014ko ekaina

Edizioa, itzulpena eta sarrera: Bagaudia

Azala, diseinua eta maketazioa: Iñigo Uribetxeberria

Eskerrak:

Enekari zuzenketa lan finagatik

Iñigo Uribetxeberriari

Raúl Zibechiri eta John Hollowayri bereziki lan hau argitaratzeko baimena emateagatik.



Aitortu-PartekatuBerdin 3.0

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Edizio honetako eduki guztia Copyleft lizentziapean argitaratzen da. Eduki hauek era askean kopiatu, zabaldu eta argitaratu daitezke, beti ere, bi baldintza hauekin:

BY – egiletzaren aitortzea

SA – lan eratorririk egitekotan lizentzia berbera erabiltzea

L.G. SS-547-2014

ISBN 978-84-616-9266-8

Harremanetarako:

Bagaudia

51 P.K. 20720 Azkoitia

bagaudia@inventati.org

Kapitalaren aurka eta haratago

**Eztabaida ireki bati
buruzko gogoetak**

Hitzaurrea: Raúl Zibechi

Edizioa, itzulpena eta sarrera: Bagaudia

John Holloway

AURKIBIDEA

Sarrera	7
Hitzaurrea	15
Eztabaida ireki bati buruzko gogoetak	23
Isiltasun oihukari baten galderak	23
Ilunpean ikusi nahian	27
Antolaketa, errebeldia eta egunerokotasuna	37
Subjektu iraultzailea eta autodeterminazioranzko bulkada	45
Autodeterminazioranzko bulkadaren "continuum"-a	53
Alderdia, Estatua eta erantzunik gabeko galderak	59
Egitea lanaren kontra	73
Autodeterminazioa, Denbora eta Historia	81
Komunismoa, ikusezinerantz begirada	85
Bibliografia	88

Sarrera

John Hollowayk gaur egungo pentsamendu kritiko, anti-kapitalista eta iraultzailearen esparruan leku berezia betetzen du. 1991tik Mexikon bizi den autore honen ibilbidea oparoa izanagatik ere, 2002an argitaratutako *Mundua aldatu boterea hartu gabe: iraultzaren esanahia gaur* (jatorrizkoan: *Change the World Without Taking Power: The Meaning of Revolution Today*. PlutoPress, 2002) liburua mugarriztat har daiteke. Izenburuak berak dioenetik hasi, eta liburuan egiten den iraultzaren kontzeptu tradizionalaren kritikak hautsak harrotu zituen eta oihartzun handiko eztabaida sortu giro marxianoetan eta oro har kapitalismoaren aurkako mugimenduetan. Horren ondoren etorri zen, 2006an, liburua piztu zuen eztabaidarekin jarraituz, eta batez ere marxismo tradizionalaren ikuspegitik egin zitzaizkion kritikei nolabait erantzuna emanez, hemen aurkezten den, eta, oro har, bere hausnarketa laburbiltzen duen testua, eta, horrekin batera, kritika eta iruzkin horietako hainbat biltzen dituen *Contra y más allá del capital. Reflexiones a partir del debate sobre el libro "Cambiar el mundo sin tomar el poder"* (Herramienta, 2006) liburua. Orain arte ar-

gitaratutako bere azken lana den 2010eko *Kapitalismoa pitzatu* (jatorrizkoan: *Crack Capitalism*. PlutoPress 2010) liburuak, aurreko lanetan garatzen zituen tesiei jarraipena eman eta haietan sakontzen du.

Iraultzaren beharra edo premia larria agerian uztearekin batera, 2002ko hartan egiten zen kritikak, estatuaren boterea hartuz “garaile” izan diren “iraultza sozialistak” zituen jomugan, edo nahi bada, gizartea aldatzera begira, kanon leninistan oinarritutako iraultzen porrota azaleratzea. Hollowayren jarduna ez da, ordea, ortodoxiaren kritikan agortzen. Nahiago du iraultzaren kontzeptua erantzun bezala, hau da, boterea hartzera bideratutako mugimendu lez planteatu baino, galdera bezala formulatu, eta galderarekin aurrera jarraitu, berak dioen moduan “galdetuz bidea urratzen dugu” leloa antolaketa-printzipio bezala hartuz.

Frankfurteko Eskola, situazionismoa, 68ko Maiatza, mugimendu sozial berriak, “sozialismo errearen” porrota, altxamendu zapatista... iraultzaren esanahia berplanteatzeko mugariak izan dira. Norabide horretan Hollowayren ikuspegi ireki, ausart eta biziak, kontuan hartzeko modukoak diren hainbat ekarpen ditu berekin.

John Hollowayk, beste hainbat eta hainbat pentsalarik bezala, mundua aldatu beharra aldarrikatzen du. Berehala onartuko du, ordea, ez berak ez beste inork ez dakiela hori nola lortu. Aitorpen horrek berezia egiten du, eta berezitasun horretan sakontzen du ondorioak ateratzen hasten direnean. Berarentzat teoria iraultzailea, kritika, eta soilik kritika da. Ez dago “baina baita ere” batentzako lekurik, azterketa

positibo eta objektibo batentzako lekurik, gizarte gaitan kritikatik haratagoko kategoria zientifikorik ez dagoelako.

Bestalde, eta hemen teoriko askoren harrokeriatik aldentzen da, Hollowayk ez du bere burua gizartearen gainetik ezartzen. Askotan elitismo moralista eta itxuratian erortzea erraza da: “gu, benetako kontzientzia dugunok, bide zuzenetik goaz; baina, besteak, gizartea hain dagoenez gaixo, ez dira horretaz jabetzen, azken finean kontzientzia faltsua dutelako”. Hori zentzugabea da. Gizarte gaixo batean, ezinbestean, gu geu ere gaixorik gaude, gizartetik kanpo ez gaudelako, “ez dago kapitalaren kanpoalde bat, kontra-eta-haratago bat baizik” esango du Hollowayk. Eta, era berean, gizartea ez dago gugandik kanpo, gaixotasuna (fetixizazioa edo autoantagonismoa) guztiok barruraino sartuta dugulako. Gizarte kritikatzeko, hortaz, gizarte horren iraupenean guk geuk dugun konplizitatea kritikatzeko da.

Hollowayk ez du onartzen inongo abangoardismorik. Ez da zuzena pentsatzea mundua bi taldetan banatuta dagoenik: alde batetik aldaketaren alde borrokatzen garenok eta bestetik jendearen gehiengoak. Hor, iraultzaileen pape-
ra gehiengo horretara heltzea izango litzateke kontzientzia harrarazteko; nolabaiteko hezkuntza, azalpen eta elkarrizketen bidez. Eskema horretan datzan arazo nagusia kontzientziarena da. Hollowayrentzat, aldiz, errebolta publiko eta ikusgarrien ondoan errebelio ikusezinak, edo ia ikusezinak daude, eta, ondorioz, arazo nagusia ez da kontzientzia izatearena eta kontzientzia ezarena, sentiberatasunarena baino; sentiberatasuna, etenik gabeko desobediencia horiek bilatzeko eta zabaltzeko, gure egunerokotasunean ondo

errotutako errebelio txiki eta ia ikusezin horiek manifestazio zatatsuen baina erradikalagoak direlako askotan.

Iraultza autoemantzipazio bezala ulertzeko (eta, guretzat, gaur egun, zentzurik izatekotan horixe du) alferrik joko dugu subjektu puru eta kontraesanik gabeko baten bila. Ez dugu halakorekin sekula topo egingo. Horrek ez du esan nahi "gu" batetik abiatzen ez garenik: baina "gu" hori ez dago besterik gabe kapitalismoaren aurka; kapitalismoaren barnean ere badago; hala, geure buruaren kontraesanak ere kritikatu behar genituzke beldurrik gabe. Are gehiago, Hollowayren ustez, "gu" horretan jende-talde jakin bat ikusi ordez, kontraesanaren polo bat ikusi behar genuke: "gu" ez-definitu bat, "gu" ez-identitario bat, "sarritan kontraesankorrak diren zati edo atal ezberdinez" osatutako "gu" bat.

Estatua kontrolatzera zuzendutako borrokaren bidez egin ahal den iraultzak badu alternatibarik Hollowayren hitzetan. Hori, gizakion *egite* sozialaren autodeterminazioa edo emantzipazioa litzateke, edo horretara bideratzen gaituen bulkada, geure bizitzaren kontrola geure gain hartzera garamatzen bulkada. *Egitearen* kontzeptua zentrala da Hollowayren arrazoibidean. Egindakoari kontrajartzen zaion *egitea* hain zuzen. Ideia edo kontzeptu hau Marxengandik dator kio zuzenean, honek *Kapitala*-ren lehen kapituluaren *merkantziaren fetixismoaz* hitzegiten zuelarik. Marxek bere ekonomia politikoaren kritikaren erdigunean eta kapitalismoaren sustraietan kokatzen zuen kontzeptua *merkantzia-forma* delakoarena zen. Hori erabakigarria da, nola kapitalismoan, *egileak* beren *egitetik* bereiztuak garen ulertzeko. Merkantziaren balioa ez dator izan dezakeen erabilera-balioetik, truke-balioetik baizik. Lan abstraktuak, pro-

dukzio baliabideen jabe ez diren *egileen* aldetik ezartzen zaion lanordu kopuruak, definitzen du merkantziaren balioa. Hortik, beraz, diren merkantzia guztien trukagarrigasuna, eta ondorioz, dirua, plusbalia, etab. *Egite* sozialaren bidez, hau da, lan konkretuaren bidez produktutakoa, lan abstraktuaren arabera balioestean, hark izaera autonomoa hartzen du eta *egileen-gandik* kanpo dagoen zerbait bihurtzen da. Gizakion lanagatik sortu izanak emandako jatorri soziala itzaltzen da. *Egitearekin* duen harremana ukatzen duen zerbait bihurtzen da. Produktio kapitalistan, merkantziaren ezaugarriak, gauza guztien produktiora eta harreman sozialen esparrura zabaltzen dira. Horrela, harreman sozialak, Marxen esanetan, ez dira itxuraz bakarrik, baizik eta egiazki dira "pertsonen arteko gauzen harremanak eta gauzen arteko harreman sozialak". Hau da *merkantziaren fetixismoaren* muina¹.

Horixe bera da, aldiz, Hollowayren esanetan, marxismoaren tradizio klasikoak behin eta berriz ahaztu izan duena, eta hori eginez, Hollowayk bere jardunaren erdigunean ipintzen duen antagonismo nagusia ezkututzen duena. Hau da, *egitearen* eta lanaren (lan abstraktuaren) arteko antagonismoa; marxismo klasikoak lana (eta ondorioz langileria, proletargoa) eta kapita-

1 Guy Debordek honela azaltzen du bere lanik ezagunenean: "Merkantziaren fetixismoaren printzipioa [...] espektakulan gauzatzen da erabat, non mundu hautemangarria bere gainetik existitzen den irudi hautaketa batek ordeztzen duen, eta aldi berean hautemangarriaren artean hautemangarriena bezala azaltzen den". Guy Debord: *La Société du spectacle*, 1967.

Aipamena osorik jatorrizkoan: "C'est le principe du fétichisme de la marchandise, la domination de la société par 'des choses suprasensibles bien que sensibles', qui s'accomplit absolument dans le spectacle, où le monde sensible se trouve remplacé par une sélection d'images qui existe au-dessus de lui, et qui en même temps s'est fait reconnaître comme le sensible par excellence".

laren artekoa baizik ikusten ez duen tokian. Eta Marxen hitzak gogoratzen dizkigu ekonomia politiko guztiaren ardatza lanaren izaera bikoitza kontuan hartzean dagoela esaten duenean. Hau da, Marxen metodo kritikoaren funtsak lana antagonismo ireki bezala ulertzean datza. Salgai edo merkantzia ekoizle den lan abstraktuaren eta egite konkretu edo bizi jarduera kontzientearen arteko antagonismoa somatu behar dugu "lana" kontzeptuaren azpian. Lana (lan abstraktua) eta kapitala (eta ondorioz Estatua, honek bideratzen dituen harreman sozial guztiak lan abstraktuaren bitartekaritza egiten dituen heinean) txanpon beraren bi aurpegi dira. Antagonismo bakarra ez da, ez eta nagusia ere, lana eta kapitalaren artean dagoena. Oinarrizko antagonismoa egite soziala eta hori ukatzen duenaren artean dago; deitu, lana, dirua, balioa edo Estatua.

Hori ez da ordea geldia edota betierekoa den zerbait. Kapitalismoa deritzogun produkzio-moduan ematen da, eta, beraz, hura bezalaxe historikoa da, hau da, iragankorra, eta areago, guhaurk eguna joan eta eguna etorri sortu eta birsortzen dugun neurrian mantentzen da bizirik; bihar bertan sortzeari uko eginez gero ez litzateke gehiago biziko. John Hollowayk *egitea* eta hori ukatzen duenaren arteko antagonismoa prozesu ireki bezala ikusten du, egunero gertatzen den borroka bezala, iraultza bezala. Kapitalismoaren aurka eta iraultzaren aldeko antagonismo edo borroka hortan eragiten duen motorra autodeterminazioerantzko bulkada da, *egite* sozialaren autodeterminazioerantzko bulkada. Hau da hemen itzultzen den testu honetan behin eta berriz darabilen esapidea. Lana, Estatua, kapitala eta *fetixizatutako* kategoriaz guzti horiek, kapitalismoan bizi eta bizia ematen diogun, baina bere aurka gauden subjektu kontraesankor guztiok bizi ditugun antagonismo ireki bezala

hartu behar dira nonbaitetik aterabidea aurkituko bada; eta ez naturalak balira lez, ezinbesteko oinarri bezala hor daudenak, edota historiaren garapenaren burutze edo akabera bailiran. Puntu hori da garrantzitsua Hollowayren iraultzaren ikusmoldean. Kategoriaz guzti horiek tentsio dialektikoaren ikuspuntutik irudikatzen hastea eta abiapuntutzat *egitea* ezartzea dominazio kapitalistaren deskribapenarekin hasi ordez. Mundua erabat eta sustraietatik aldatzeko, gure bulkadatik abiatzea, autodeterminazioerantzko bulkadatik, asmo eta egiteen batasun hortatik (beste animaliangandik desberdintzen gaituen batasun hortatik), eta ez gizartearen balizko azterketa objektibo eta zientifiko batetik, garapen kapitalistaren egungo fasea nolakoa den ulertu nahian. Paradigmaren bilatze hortatik abiatuz gero, kapitalismoaren izatea etorkizunera proiektatzen ari gara, hari iraupena eta normaltasuna emanez, gure kritikak hain zuzen kontrako norabidea izan behar duenean, iraupena ukatzera eta dominazioaren ahuldadeak bilatzeari lehentasun osoa ematera bideratua. Horretaz ari da, besteak beste, Holloway, Raúl Zibechiren hitzaurre batekin hasten den hurrengo orrietan doan idatzian.

Hitzaurrea

*Herriarentzat
kondaira iraultzaile faltsuak asmatzen dituen hura,
istorio liluragarriekin dibertiarazten duen hura,
itsasgizonentzat gezurrezko mapak marrazten dituen
geografoa bezain kriminala da.*

*H.P.O. Lissagaray
(Histoire de la Commune)*

Zein da jakitearen eta ez jakitearen arteko desberdintasuna?

Beste modu batean esanda: *jakitea eta ez jakitea* gizakia-
ren aukerak, politikoak, direnez, ze bulkada adierazten dute?
Zein norabideren zirriborroak?

“Galdutako umearen parabola” delakoarekin laburtu dai-
tekeen ideia bat bada motzean garatu nahi nukeena: ume bat
iluntasunean, beldurraren menpe, kantuz lasaitzen da; gauean
galduta, bere doinutxoarekin, nola edo hala babesten da edo
neke handiz bere norabidea bilatzen saiatzen da. Kantu hori

“erdigune finko eta lasaigarri baten zirriborroa bezalakoa da, kaosaren magalean¹”. Abestiak laguntzen dio kaostek ordenaren printzipio batera salto egiten.

Gutako nork ez du bizi izan antzeko zerbait geure bizitza afektiboan? Ziurtasun beharra desamodioak isurtzen duen heriotza-itzalaren aurrean; egunen batean maitasuna berriro ere sortuko dela sinestearen beharra. Eta bizitza politikoan? Babesa bilatu beharra gure ziurtasun guztiak gainbehera datozenean, batez ere 1989tik aurrera: iraultza saihestezina denaren ziurtasuna; eliteak garaitu eta irainik, goserik eta injustiziarik gabeko mundu hobea eraiki ahal izango dugunaren ziurtasuna; gizadia etorkizun hobearen aitzina doala eta hori gutxiengo baten diru-goseak zapuztuko ez duela sinestearen beharra. Zenbat zalantza uxatzen saiatzen gara ezaguna zaiguna errepikatuz, bide horrek inora ez garamatzala ez dakigunaren itxurak eginda?

Ez da erraza kaosaren eta iluntasunaren, zalantzaren eta beldurraren erdian jartzea, hortik aterako gaituen kanta lasaigarriren bati heldu gabe. John Hollowayk bere lan askotan, baina, batez ere *“Mundua aldatu boterea hartu gabe”* lanean, biluzik jartzen gaitu ziurgabetasun horien aurrean, eta ez du ezer egiten gure ezinegona arintzeko. Bereziki ez da saiatzen gu lasaitzen, bera lasaitzen, hainbat alditan porrotera eraman gaituen bidea errepikatuz. Mende bat baino gehiagoko porrotetatik ondorioak ateratzen ditu – Estatutik abiatuta mundu berri bat sortzeko irriketatik – eta urrunago joan nahi du, ilunpean lurralde berriak ikusi nahian.

¹ Gilles Deleuze eta Felix Guattari, *Mil Mesetas*, Valentzia, Pre-Textos, 1994, 318.orr.

Zer lortu nahi du Hollowayk, orrialde gutxiko tartean, behin eta berriz galdera serio eta garrantzitsuen aurrean erantzunik ez duela aitortuz? “Ahopean, nahasiki ari naiz neure buruari eta... ez dut erantzunik...” esaten digu. Heresia dirudien esamoldearekin, kapitalismoaren aurkako mugimendua “ezezaguneranzko mugimendua” dela dio. Ezezagunerantz joateko ari gara borrokan?

Itzul gaitzean haurrarenengana. Benetan dakien gauza bakarra da, iluntasunean galduta dagoela eta beldurra duela. Beraz, lehendabiziko arazoa da, iluntasunean galduta gaudela onartzeari uko egiten diogula, eta ez dakigula norantz, nola edo nondik joan. Kultura matxistaren menpe, gure ahultasunak onartzea ia bekatua da, zauri nartzisista bat. Are gehiago militante komunista bagara. Nola onartu beti egokiak, beti arrazionalak, beti zuzenak diren erantzunak emateko gai ez gara? Behin eta berriz kanta bera abestearen bigarren arazoa elkarri indarra emateko eta elkar bilatzeko egiten dugula onartzeko gai ez izatea da, haur galduak onartzen duen moduan. Aitzitik, “hau da kantua, hau jarraitu beharreko lerro zuzena” pentsatuz berresten gara. Puntu honetan, galdutako haurrak umiltasunaren abantaila ateratzen digu, bere egoera eta beldurra ez baititu ezkututzen edo saihesten.

Hollowayk ez du ezaguna den historia zaharra errepikatzen, baina “iluntasunean ikusteko saiakeran” Marxen itzala antzematen da, honek bere zalantza propioei aurre egiteko izan zuen moduan adibidez. Komunismoa ez da dekretuen indarrez ezarri beharreko ideologia edo ideal bat. Komunismoa egingarria bada gure eguneroko bizitzetan sustraituta dagoelako da, zapatistek dioten moduan “jende nahiko arrun-

tean, hau da, errebeldeengan...". "Bada eguneroko hartue-
man bakoitzaren azpian komunismoaren bulkada bat" dio
Hollowayk. Beraz arazoa gurea da: geure eguneroko bizitze-
tan ez gara bulkada askatzaileak erakusten dituzten ezauga-
riak bereizteko gai, txikiak edo molekularrak izan arren.

Antolaketa mugimendu bezala eta ez erakunde bezala
hartzea eguneroko bizitzatik bereizten ez den zerbait da, eta,
beraz, ez espezializatua, ez hierarkizatua, sailkaezina eta iden-
tifikaezina. Alderdiaren edo Estatuaren guztiz bestelakoa. He-
men ere, neurri batean, Marxen itzala ikus dezakegu; hark be-
zala, kapitalismoa, alienazioa, bereizketa, gauza bihurtze edo
kosifikazio bat ere badela iriztean: sarritan bazterrean uzten di-
ren kontzeptuak, agian, "ildo politikoa" kategoriatan barruan mu-
gatzen edo hesitzen zailak direlako.

Askori arriskutsua dela irudituko zaie –Hollowayk esaten
duen bezala- "iluntasunean ibiltzea" beste aukerarik ez izatea,
edota "espontaneista" "pauso bakoitza helmugaren aurreirudi-
kapena: autodeterminazio soziala" dela baieztatzea. Gauza gu-
txi dirudi, egiazki, gure helburua pauso sendoz oztoporik ga-
beko bideetan eta ahal bada bide zuzen, lineal eta metagarrie-
tan ibiltzea bada. Baina, igarotzeko proposatzen digun bidea
beste bat da: kapitalari egindako erresistentzian irekitako mila
haustura eta pitzaduretan sakontzea, errebeldia zantzu txikie-
nak ere nabaritzea, mendekotasunaren egunerokoan dauden
pitzadurak sentitu eta bizitzea, beraietatik abiatuz areagotze-
ko, zabaltzeko, biderkatzeko, kanpotik zuzendu edo helmuga-
rik jarri gabe. Zertarako? Zer helbururekin? Pitzaduren instru-
mentalizazioa saihesten badugu, beste behin ere, ez dakigula
erantzun beharrean gaude, gure emantzipazio gaitasunaren

arabera zabaltzen ditugula pitzadurok, eta ondorioz zalantza-
koa, kontraesankorra eta misteriozkoa dela bidea.

Boliviako Aymarek izandako esperientziek, 2000. urtetik
(Cochabambako uraren Gerra) 2003. eta 2005. urteetaraino (gasa-
ren gerrak), azken urtetan Amerikan izandako herri altxamendue-
kin sortutako itxaropena berritzen eta indartzen dute. Presidente
neoliberalak kendu eta kontinenteko lehen presidente indigena
jartzeko gaitasunean agortzen ez den itxaropena; beraien gizarte
komunitarioaren sakonenean dauden gizarte-mekanismoetan oi-
narrizten den itxaropena. Ez dute "programarik" nahiz eta gasa, ura,
eta asanblada konstituziogilea bezalako eskaerak izan; ez dute be-
raien borroka batzen duen erakunderik. Ez dute komando zentra-
lik. Hala ere, edo horri esker behar bada, ekintza oso garrantzitsuak
gauzatu dituzte: bi gobernu erorarazi zituzten hogeitaz hilabetetan,
Boliviako Estatuaren kontroletik at eskualdeak sortu zituzten eta
eredu liberalari zilegitasuna kendu zioten. Hori guztia abangoar-
diako alderdirik gabe gauzatu zuten, kanpo agintaririk gabe (be-
raien agintariei "betelaneak" deitzen diete, mugimenduan ga-
rrantzia gutxien duen arloa delako agintariena), ordezkariarik gabe
eta oinarriek edo baseek, mobilizatzen direnean artikulatzen dituz-
ten sakabanatutako erakunde multzo batekin.

Aymaren lurraldeetan badira hamar "kuartel", azken bost ur-
tetako mugimenduetatik jaiotakoak, Qalachakakoa lehenengoa
eta behar bada garrantzitsuena izanik. Achacachi herrixkatik oso
gertu, Warisatako *ayllu* eskola eta Titikaka lakuaren inguruan dago
Aymara "kuartela". Bertaratzen denak altuera ez oso garaiko mui-
no batekin, tontor harritsu batekin egingo du topo... ezer gehia-
go gabe. "Kuartel" bat? Bertan behera utzitako muino bat? Haiek
"kuartela" han dagoela diote behin eta berriro; ez dago gure esku

hori zalantzan jartzea. Aymaren logika bestelakoa da. "Kuartelak", hau da, militarizazio egoeran dauden komunitateak agertu eta desagertu egiten dira, etenaldiak dituzte logika arruntarekin alderatuz. Jarraikotasuna beste leku batzuetan dago: une bakoitzaren arabera desberdin adierazten diren komunitateetan, nekazal girokoak edo herrietakoak. Lanean *ayni* dira, elkar laguntza; agintaritzari dagokionez, txandakatzea dira; erabaki kolektiboetan, asanblada; beste gauza asko dira... eta altxamenduetan "kuartelak" dira. Ez dago bitzta arruntetik bereizten den erakunderik edo banaketarik: lana edo festa bultzatzen duen antolatze berberak sostengatzen du mobilizazioa eta altxamendu armatua.

Herria antolatu gabe dagoela eta iraultzaileen zeregina hura antolatzea dela pentsatzea pertsonen biziak iraintzea, gutxiestea da. Herria kaosarekin eta iluntasunarekin identifikatzea eta iraultzaileok ordena eta argia eramango dizkiegula pentsatzea Estatuaren logikaren arabera moldatzea litzateke, dituzten burujabetzarako bulkadak ezereztatuz. Apaltasun eta xamurtasun handia behar dira, ez dakigula onartu eta han, pertsona arrunten artean, askatasun bulkadak eta beste mundu baten oinarriak ernamuintzen ari direla aitortzeko.

Jakitearen eta ez jakitearen arteko desberdintasuna urrunago joateko nahia da. Hollowayren lan intelektuala autode-terminazioranzko bulkadaren zati da; horretaz elikatzen da eta bidean sakontzen laguntzen dio. Gizartearen ekintza kolektiboak soilik osatu dezaken burujabetzaren kontzeptuan barneratzen da; puzzlearen piezak ipintzen ari den bitartean pieza horiek sakabanatzen ari da, emantzipazioak ez duelako helbururik eta tresnarik, ia marratu gabeko bidea da, objekturik gabeko desira, izenik gabeko aditza, eta mugimendua, isuria...

*Raul Zibechi*¹
Montevideon,
2006ko Martxoaren 17an.

1 2003ko *Prensa Latina* saria, Uruguayko *Brecha* astekariko erredakzio kontseiluko kidea. *Multiversidad Franciscana de América Latinan* irakasle eta ikertzaile bezala aritzen da. Gizarte eta auzoetako erakundeetan, komunikabide alternatiboetan kolaboratzaile aktiboa da eta hainbat saiakera eta liburu idatzi ditu.

Kapitalaren aurka eta haratago Eztabaida ireki bati buruzko gogoetak

Isiltasun oihukari baten galderak

Bikain, baina... zer egingo dugu?

Azken bi urteotako eztabaidan sorturiko galdera eta kritika ororen gainera, galdera horrek itolarritzen nau gehien.

Gizakiarentzat kapitalismoa den hondamendia egunetik egunera nabariagoa da. Azken urteotan gure oihua areagotuz joan da. "Amorrotuta eta sutan nago, eta oso etsita, ez baitut irudikatzen non ezarri hainbeste amorru". Lagun baten eskutitz batetik ateratako esaldi horrek milaka pertsonen etsipena adierazten du.

Amorrua isila da, eta era berean, oihukaria. Etsipen mingotsa eta sutsua da, baina baita ere Argentina da, eta Ekuador, eta Bolivia, eta gerraren aurkako mugimendua milaka eta milaka manifestarirekin. Mugimenduen mugimendua, mugimenduen kakofonia bat.

Arazoa premiazkoa da. Mundu osoan gatazka armatuak dituzten hainbat herrialde gaurkotasun osoz ageri diren errea-

litate gordinak dira, eta baita gizadi osoaren etorkizunerako mehatxuak ere. Zer egin dezakegu hondamendia gelditzeko eta zabal dadin ekiditeko? Nola aurki dezakegu itxaropenik? Iraultzari eta botereari buruz galdetzea ez da soilik abstrakzio bat (“egunen batean, etorkizunean...”), orain nola pentsatzen dugun eta aritzen gareneko kontua baizik.

Ohiko erantzunak krisialdian dira. Blairek eta Lulak, bakoitzak bere erara, ageriko egin zuten “ezkerreko” alderdiei bozka emateak etsipenera besterik ez duela eramatzen. Alderdi leninista iraultzaileek ere ez dute aldaketarako inongo perspektibarik eskaintzen: ez da, soilik, haien historia, errepresio eta zapalkuntza historia dela, iraultzaren bidez boterea hartzea pentsatzeak ere zentzu handirik ez duela baizik, munduko inongo txokotan boterea hartzeko aukera txikiena duen alderdi iraultzailerik ez dagoenean (Nepaleko erreinuan izan ezik?).

Baina, orduan... zer? Indarkeria erakargarri agertzen zaigu, edo ulergarri gutxienez. Ez zaigu zaila egiten bonba-gizonen ekintzak ulertzea. Ez dugu zalantza izpirik milaka lirakekeela Blair edo Bush bihar hilko balituzte poztuko lirakekeenak. Eta hala ere... ez da hori bidea: indarkeria ekintza horiek ez lukete ezer egingo mundu hobe bat sortzearen alde.

Beraz, Estatuari ez eta terrorismoaren indarkeriari ere ez. Baina, orduan... zein norabide hartu?

Zenbait irakurlek erantzuna aurkitu nahi izan dute *Mundua aldatu boterea hartu gabe* nire liburuan, eta etsita sentitu dira. Baina ez dago erantzunik, ezin du erantzun bat egon.

Hainbat kritikarik argudiatu du iraultzaren gaiari tradizionalki eman zaion erantzuna (boterea hartu eta gizartea aldatu) zalantzan jartzea erantzun alternatiborik proposatu gabe, gizarte-borroka desmobilizatzea, edo nahita edo nahi gabe, inora ez garamatzaten mikropolitikaren ugalketa sustatzea dela (cf. Bonnet, 2003-2005). Oker daude: *Mundua aldatu boterea hartu gabe*-k ez du krisirik zabaltzen iraultzaren ohiko kontzeptuaren ideian, aldiz, hura aitortzen du oinarri moduan, beste behin ere iraultzaz serio hitz egiten hasateko. Ohiko kontzeptuaren krisia lehendik ere hor zegoen: hori aitortzeari uko egiteak desmobilizatzen du borroka eta ezinezko egiten mundua aldatzeaz zintzo hitz egitea. Eztabaida ireki honen aberastasunak erakusten du kapitalaren aurkako borrokaren ohiko egituren krisia.

Baina nola da posible gai ikaragarri honek irautea? Nola orduan? Hor dirau galdera ikaragarriak. Erantzunik ez edukitzeak etxean sartuta negarrez gelditu behar dugula esan nahi al du? Hainbat kritikarientzat hori da nire argudioak berekin daramana. Estatuaren boterea hartzearen ideari uko egitea antolakuntzaren beharrari uko egitea da haientzat¹. Ez dago ezer egiaitik urrunago: Estatuaren boterea hartzearen ideari uko egiteak antolakuntzaren gaia mahai gainean jartzen du.

Galderak, galderak, galderak, baina, non dago erantzuna? Erantzun gose hori, neurri batean, lider baten bilaketa da (“esaguzu zein bide hartu”). Baina, era berean, gure egoeraren etsipena adierazten du: zer arraio egingo dugu?

1 Universidad Autónoma de México (UNAM) 2004ko maiatzean egin eztabaidan Boronek planteatu zuen puntu hau.

Doana, galderarekin aurrera egiteko saiakera bat da (baina, ez, oraindik ez, erantzun bat ematea) eta bitartean, aldi berean, baita kritika batzuei erantzuteko ahalegina ere.

Ilunpean ikusi nahian

Zein da alternatiba Estatu kontrolatzera zuzendutako borrokari?

Estuari alternatiba egon, badago. Izan ere, Estatu alternatiba hori zapuzteko mugimendua da soilik. Autodeterminazio sozialerantz garamatzen bultzada da alternatiba.

Autodeterminazio soziala ez da existitzen eta ezin du existitu gizarte kapitalista batean: kapitala, bere forma guztietan, autodeterminazioaren ukazioa da. Are gehiago, gizabanakoaren autodeterminazioa ez da existitzen eta ezin du existitu inongo gizartetan. Gure *egitea* eta bestea hain daude elkarlotuak, non gure *egitearen* autodeterminazioa ilusio bat den.

Irauten duena autodeterminazio sozialeranzko bulkada da. Hori besteek inposatutako erabakien aurka egitean hasten da. "Ez, ez dugu agintzen zaigunik egingo". Abiapuntua uko egitea, intsumisioa, altxamendua, desobedientzia da. Ezetza. Baina, ezezkotasunak, ezezkotasun soiletik haratago doan proiektzioa darama berarekin: bestek ezarritako erabakien ukazioak autodeterminazioranzko bultzada darama berekin. Kasurik onenean,

ukazioa haratago doa “Ez, ez dugu agintzen zaigunik egingo, komenigarritzat jotzen duguna baizik: beharrezkoa, egokia edo atsegina zaiguna egingo dugu”. Ezetzak baietza du beregan, edo, hain zuzen, baiezeko asko eta asko, baina baiezeko horiek egungo gizarteari uko egitean errotuta daude, bere oinarria ezezko-tasunaren gramatika bat da². Baiezekoak ezezko sakonagoen moduan ulertu behar dira: ukazioaren ukazio bezala, baieztapen ez direnak ordea, jatorrizko ukazioa baino ukatzaileagoak baizik³.

Bere baitan baiezeko asko daramatzen ezetza aurka-eta-haratago doan mugimendua da. Autodeterminazioranzko mugimendua autodeterminazioaren ukazioan oinarritutako gizartearen aurka dagoen mugimendua da, eta, aldi berean, egun bizi dugun gizartetik haratago doan proiektzioa da, ekintzen, hitzen eta ametsen proiektzioa.

Aurkak eta haratagok, elkarrekin mantendu behar dute. Ohiko teoria iraultzaileak bere egiten du *aurkak haratagok* baino lehenago izan behar duela: lehenbizi kapitalismoaren aurka borrokatuko gara, gero haratago egingo dugu eta agindutako lurrak gozatu. Beharbada, argudio hori baliagarri zen garaipena

2 Ezezko-tasunari jarritako enfasi horren gaineko kritika baterako, ikus De Angelis (2005) ia beti adeitsua den eztabaidan, eta askoz ere kontraogoa den Lebowitzen (2005) analisia.

3 Ikus Adorno (1990:161): “Ezezkoaren ezezkoa baiezekoarekin berdintzea identifikazioaren maila gorena da, bere forma puruenera murriztutako printzipio formala. Horrekin, dialektikaren muinean printzipio antidialektikoa gailentzen da, *more arithmetico* minus bider minus berdin plus dioen logika tradizional berbera, eta Hegel osterantzean hain alergikoa zen matematika hortaxetik kopiatua dago”. Ez dio axolarik egingarri nahi dugun “beste mundu” horretan zenbaterainoko zehaztasunez fokua jartzen dugun; garrantzitsuena zera da: gogoratzea ezezko-tasuna dela beste mundu bateranzko bulkadaren punturik gorena, hau da, gure ukazioa bizi dugun gizarteari. Ezezko-tasunaren teoriaren garrantzia iraunkorrari dagokionez, ikus, adibidez, Agnoli (1999) eta Bonefeld (2004). *Mundua aldatu boterea hartu gabe* liburuan Adornoren ukazioaren dialektikaren eraginaren kritika baterako ikus Hudis (2003) eta Dri (2002).

ziurtzat jotzen zuen mugimendu batentzat. Baina, jada, ez dugu halako ziurtasunik, eta *aurka* egote horretan bakarrik jartzen den enfasiak (konfrontazioaren logikaren barruan)⁴, aurre egiten diogun horretan logika errepikatzeko joera hartzen du. Are gehiago, ezin gaitezke iritsi daitekeen balizko etorkizunaren zain egon. Orain da beharrezkoa haratago mugitzea logika ezberdin bat sortzearen alde, hizkuntzaren erabilera ezberdin baten alde, *egitearen* antolaketa ezberdin baten alde. Bestela esanda, autodeterminazioranzko bulkada ezin daiteke izan “lehenbizi kapitalismoa suntsituko dugu, eta gero sortuko dugu gizarte autodeterminatzailea”. Autodeterminazioranzko bulkada zera bakarrik izan daiteke: autodeterminaziorantz mugitzea, hori berori ukatzen duen gizartearen aurka. Gu geu gara, autodeterminazioranzko mugimendua, agenda ezartzen dugunak.

Aurka ezin daiteke jada *haratagotik* banandu, eta, aldearantziz, ezta *haratago aurkarengandik* ere: autodeterminazioa berresteak kapitalismoaren kontra mugitzea esan nahi du derrigorrez. Kapitala balioaren, diruaren, eta gauza bihurtu (kositikatu) eta kontrolatzen ez ditugun harreman sozialen dominazioa da. *Haratago* bat baieztatzeak kapitalarekiko (bere izaera ezberdinetan) gatazkan jartzen gaitu ezinbestean. Nahiz eta kapitalaren logikari uko egin, konfrontazioa saihestezina da. Gure *bai*-en gauzatzea ezin daiteke *ezetza*ren borrokatik banandu, *ezetzak* indarra eta esanahia edukitzeko gure *bai*-ak gauzatzearen borrokatik banandua egon ezin duen bezalaxe.

Hori (besteek gure ordeztutako erabakiei ezetza ematea, eta gure bizitzan gure geuk agintzea) ez da autodeterminazioa, de-

4 Konfrontazioaren logikaren kritikarako, ikus Benasayag eta Sztulwark (2000) eta Aubenas eta Benasayag (2002).

nen ekintzak korapilatuta dauden mundu batean izan daitekeen autodeterminazio posible bakarra mundu guztiko jendea biltzen duena delako. Izan daitekeen autodeterminazio bakarra *egitearen* jario sozialaren erabakimen sozial kontzientea da. Orain existitzen dena ez da autodeterminazioa, autodeterminazioranzko bulkada baizik: ez osotasuna, osotasun nahia baizik⁵. Komunismo hitza erabiliz autodeterminazio sozialaz ari bagara, orduan argi dago komunismoa (gaur egun behinik behin) soilik mugimendu bezala, bultzada bezala, desira bezala uler daitekeela, eta Marxekin esan⁶:

Guretzat, komunismoa, ez da ezarri beharreko egoera bat, errealitateari lotu behar zaion ideal bat. Guk, komunismo, egungo egoera baliogabetu eta gainditzten duen mugimendu errealari deitzen diogu.

Autodeterminazio sozialeranzko bulkada aurrez aurre dituen mugen aurka-eta-haratago (haratago-eta-aurka) dagoen mugimendua da. Ez dago autonomiarik, ez da posible autodeterminaziorik kapitalismoaren eremuan. Autonomia (autodeterminazioaren zentzuan) kapitalismoaren mugen aurka-eta-haratago garamatzen etengabeko proiektu beza-

5 Osotasunaren eta osotasun nahiaren arteko alde hau Luckácsen “Historia eta klase-kontzientzia” (1985, 3. atala, 5. kapitulua) lanaren bihotzean aurkitzen den kontraesan leherkorra da.

6 *Mundua aldatu boterea hartu gabe*-k marxismoa albo batera uzten duela eta egin zaizkion kritika ugariaren kontra, azpimarratzekoa da Stelzerek (2005) egiten duen aipamen zorrotza: “Hollowayren liburua, funtsean ekarpen ortodoxoa da (liburu fundatzaileekiko leialtasunagatik), ‘eszena politiko’ garaikide bati (botilako mezu hura bezala) iraganaren konkista teoretiko ez-gauzatu bat helaraztearekin kezkatua; ‘aktibisten’ eta partidu-sindikatu-ONG koadroen negozioak nagusi diren ‘eszena politikoa’, beren baldintza eta kontraesan historiko propioen aurrean joera amnesikoa duen beren ohiko pentsamendu grinatsurekin” Ikus, baita ere, Fernández Buey (2003).

la uler daiteke soilik. Komunismoa kanporantz zabaltzen den mugimendua da, bizitzaren ezinegona, mugak haustea eta transzenditzea⁷, identitateak gainditzea, gizatasuna egiteko proiektu erreprimitezina⁸. Lurralde berri bateko ibaiaren jarioa da: batzuetan harkaitzen kontra hautsiz, inguratuz, gaitetik pasa beharrean; beste batzuetan huts egin eta norabide susmaezinak hartuz. Baina sekula atsedetik hartu gabe, metafora nahasien erauntsi kakofonikoan aurrera eginez beti. Jario hori programa ezina da, ez du asmo zehatzik, izar utopiko bati jarraitzen dio, proiektu eta amets guztietatik altxatzen den izarra, gure *aurkek* proiektatutako *haratago* guztietatik, gizagabetasunezko munduarekiko gure *ezetzean* dauden *bai* guztietatik altxatzen dena. Erreboltak ezin du harrotasunez geldirik egon, aldiz, kanpora eta aurrerantz bultzatzen gaitu, iraultzarantz, giza-egitearen eraldatze osorantz, hori baita autodeterminazio sozialaren benetako oinarria.

Pitzaduretatik hasiko gara orduan, kapitalaren dominazioaren arrakaltetatik. Ezetzetatik, arbuioetatik, insubordinazioetatik, edonon dauden aurka-eta-haratago doazen proiektzioak oinarri hartuz hasiko gara. Mundua pitzadura

7 Negrik (2002:184) dio: “edozein eratako transzendentsia absolutuki arbuizaten dut”. Nahiz eta ziurrenik transzendentsiaren ordez beste zerbait esan nahiko duen, egia da bere eta beste hainbat postestrukturalistaren ikuspuntutik ez dela posible borrokaren nondik-norakoa aurka-eta-haratago terminoetan ulertzea. Sarritan, *Mundua aldatu boterea hartu gabe* eta Hardt eta Negriren *Imperio*-ren artean egiten den lotura teorikoki eta politikoki funtsgabea da, ez bada biek ala biek teoria iraultzailea berpentsatzearen alde argudiatzen duten neurrian. Postestrukturalismoarekiko loturaren gaiari buruz ikus Seibert (2004); Negriren teoriarekin dituen ezberdintasunei buruz ikus Bonefeld (2004).

8 Autodeterminazio sozialeranzko bulkada, Marxek (Kapitala, 7. kapitulua) arkitektuaren eta erlearen artean egiten duen ezberdintze erabakigarriaren berradierazte bat besterik ez da. Gizakiaren eta animalien arteko bereizketa ez dago beren *egitearen* oraingo autodeterminazioan, bere ahalezko autodeterminazio (ukatuan) baizik. Zentzu horretan, autodeterminazioa (soilik soziala izan daitekeena) gizatasuna sortzearen proiektua da.

eta arbuio horietaz beterik dago. Bazter guztietan jendeak, banaka edo kolektiboki, zera esaten du: “Ez, ez dugu kapitalismoak (sistemak) agintzen diguna egingo: guk, geure bizitza nahi dugun bezala antolatuko dugu”. Batzuetan hain dira txikiak pitzadurak, matxinoak berak ere ez direla euren errebeldiaz jabetzen; batzuetan erresistentzia proiektuetan konprometitutako taldeak dira, beste batzuetan Lacandona oihana bezain handiak dira; baina, pitzaduretan zenbat eta gehiago fokua ipini, orduan eta argiago ikusten dugu mundua, ez (soilik) dena inbaditzen duen sistema kapitalistaren dominazio moduan; pitzadurez, arbuioez, erresistentziez eta borrokez jositako mundu bat bezala baizik. Pitzadurok kontraesankorrak dira beti, kritikatzeko errazak, txantxetan hartzen direnak sarri: kontraesankorrak izan behar dute, gizarte kapitalistaren antagonismoetan erroturik baitaude. Aurka-eta-haratago doan gure mugimendua bizi dugun gizartearen mugez eta ergelkeriz beterik dago. Garrantzitsueña ez da mugimendua egun dituen mugak, mugimendua norabidea baizik, aurka-eta-haratago doan bultzada, autodeterminazio sozialeranzko bulkada. Arazo praktikoa eta teorikoa zera da: nola pentsatu, antolatu eta parte hartu erresistentzia horiek berezkoa duten aurka-eta-haratago doan mugimenduan.

Batzuetan argudiatzen da kapitalismotik komunismora bidean, feudalismotik kapitalismorakoan ez bezala, antolakuntza berria ezin dela zaharraren zirrikituetan garatu, eraldaketak bat eta bakarra behar duela izan derrigorrez. Argi dago orduan ez dagoela alternatibarik: mundu kapitalista erabat sozialismora edo komunismora bihurtzea pentsaezina da. Era berean, gizarte-erlaketaz pentsatzeko

modu bakarra pitzaduretatik abiatuta da. Estatu-boterea hartzea pentsatuko bagenu ere, Estatu bakoitza ez litzateke, kasurik onenean ere, hau baino gehiago izango: pitzadura bat dominazio kapitalistaren sarean. Gakoa, beraz, ez da norberak iraultza pitzaduren moduan pentsatzen duen, baizik eta zein den erarik onena pitzadura horiek pentsatu eta antolatzeko: bestela esanda, ez dago dominazio kapitalistaren pitzaduretatik hastetik eta errebelio horiek harreman sozial kapitalisten aurka-eta-haratago nola mugi daitezkeen pentsatzetik kanpo alternatiba posiblerik.

Teoria iraultzailea aurka-eta-haratago doan erresistentzia jario horren parte da, bidea aurrera doala sentitzea, harkaitzen aurka txikitzea, ilunpean ikusteko ahalegina: ez da ildo zuzena marraztea, mugimendua zati da eta mugimendua bera bezain kontraesankorra⁹. Autodeterminaziorantz bultzatzen duen teoria, kontraesanak kontraesan, lehenik kritika da: autodeterminazioa ukatzen duen ooren kritika, gizarte-harremanak fetixizatzearen kritika, zeinak autodeterminazioa litekeen ere gure begietara ezkutitzen duen; autodeterminazioranzko bulkada etengabe itotzea mehatxatzen duen fetixizazioaren kritika.

Autodeterminazioranzko bulkada ez da instrumentala: ez dugu lehenik helburu jakin bat zehazten eta hori lortzeko bidea ondorioztatzen. Aitzitik, kanpora fokatutako mugimendua da, ibiliz urratzen den bidea, ilunpean ibiliz, gure proiektu

9 Stoezlerek hau edertasunez adierazten du *Mundua aldatu boterea hartu gabe*-k dituen kontraesan ugari adierazi ondoren hau baieztatzen duenean: “bere horretan kontraesankorra izanik, kontraesan errealak adieraztean datza liburuak izan dezakeen erakargarritasunetako bat”.

zioetatik sortutako izar utopikoaren argiarekin bakarrik gidatuta. Ilunpean ibiltzea arriskutsua da, baina ez dago beste aukerarik¹⁰.

Ilunpean ibiltzea, gure proiektzioen utopiaren izarrak gidatuta eta amorruek bultzatuta, egun bizi dugun giza-gabetasunari ezezkia emateak eragiten duen amorruek bultzatuta. Gure mugimendua norabide batekoa da. Balantza egiten dugu, okerreko bidezidorrak hartzen ditugu, bidea berraztertzen dugu, baina beti ere norabide berean joaten saiatuz, autodeterminazio sozialerantz. Pausu bakoitza helmugaren aurreirudikapena da: autodeterminazio soziala. Ez da joan-etorriko mugimendua. Hau garrantzitsua da, zeren teoria iraultzaile tradizionala Estatuaren kontrola ardatz duen mugimendua baita: lehenik Estatu-kontrola eskuratzeko edozer egin behar dugu; bigarrenik Estatutik irten eta gizarte eraldatzeko. Lehenik norabide horretan goaz, eta gero joan ahal izango dugu justu kon-

10 Atal honetan, argudioa Alberto Bonnetek egindako krikitaren aurka zuzentzen da: “Ezinezkoa da adierazlea bakarrik den politika, eta, era berean, izaera horrekin planteatzen den edozein iraultza. Baina onar dezagun, argudioaren alde, posible izan daitekeela. Esker mila orduan, baina (ustezko) politika instrumentalarekin geldituko gara. Aurkezteak hainbat orri beharko lituzketen arrazoi ugariengatik nahiago dugu hau, baina, jar dezagun gure arreta giltzarri den puntuan: politika adierazlea, politika irrazionala da. Xederik gabeko politika (eta egiatan adieraztea ez da xede bat) ezin da arrazionalki ebaluatu, antolaketarik gabeko politika bat (eta *scola do samba* bat ez da organizazio politiko bat) ezin da demokratikoa izan, eta horrela hurrenez hurren. Are gehiago, badugu politikaren historian politika adierazleen esperientzien berri, baina ez dira iraultzaileen artean agertzen”. Halere, zail egiten da gaur egun, politika erradikala adierazlea ez den beste modu batean ikustea, norabide orokor batean kanpora mugitzearen zentzuan (izar utopiko), baina ez zehazki finkatutako helmuga batetarantz. Marshallek (2002) dioen moduan: “mugimendu negatibo bat barneratzen du, zalantza jartzailea, aldaketa sozial baterantz bide zuzena planifikatu ordez, uretan olatuak bezala, beti kanporantz mugitzen dena”.

trako norabidean¹¹. Joan-etorriko mugimendu ideia horren aurka egiten da hemen: modu kalkulatu norabide batean joan behar horren aurka gero kontrakoan joan ahal izateko. Iraultzaren kontzeptu tradizionalan ekintza bat neurtzerakoan kontutan hartzen den irizpidea hau da: laguntzen al digu honek Estatu-boterea eskuratzen? Gure ikuspuntuak irizpide ezberdin bat iradokitzen du: ekintza edo antolaketa era honek autodeterminazio sozialaren bidean aurreratzen laguntzen al digu? Gizarte autodeterminatu bat aurreirudikatzen al du?

Kapitala (eta Estatu kapitalaren forma bezala) autodeterminazio sozialerantzko gure bulkadaren ukazioa da. Zenbat eta indartsuagoa izan gure bultzada, ahulagoa izango da kapitala. Eta, alderantziz, gure bultzada ahulagoa bada, indartsuagoa kapitala. Ez dago erdibiderik¹². Gure indarra (autodeterminaziorantzko gure bulkadaren indarra) kapitalaren (bultzada horren ukazioa) berehalako ahuldadea da. Iraultzaren auzia -nola pasatzen garen errebeliotik iraultzara- soilik hau da: “Nola indartuko dugu gure autodeterminazio sozialerantzko bulkada?”

11 Zuzendu dizkiguten kritika ugariaren barnean oinarritzakoa da bi alditan pibotutako mugimendua onartzearena. Ikus González (2003) edo McLarenen (2003) oharra: “Hollowayren ez dugu borroka egiten langile-klase moduan, langile-klase izatearen aurka borrokatzen dugu, sailkatuak izatearen aurka oihu horrek, existitzen ez direnaren aitzakia erabilia, produkzio-harreman kapitalistak ezeztatze saiakera esan nahi du”. Arazoa ez da harreman sozial kapitalistek ez dutela existitzen argudiatzea, baizik eta, orain, harreman horietatik aurka-eta-harago bultzatzea egitea, eta ez guztiz deuseztatu arte, haren aurka ezer egin ezin den burdinezko kaiola lez hartzea.

12 Ikus Hirschi (Holloway, 2003a) nire erantzuna.

Antolaketa, errebeldia eta egunerokotasuna

Kanpoan eta kontra-eta-haratago mugitzea egunerokotasunean mugitzea da. Ezin du beste modu batera izan.

Autodeterminazioranzko bulkada bere ukazioaren eguneroko praktikan iltzatuta dago. Hori horrela ez balitz komunismoaren aldeko (edo beste mundu baten aldeko) borrokak ez luke zentzurik. Autoemantzipazioa ezinezkoa litzateke, eta iraultza aukera bakarra *norbaiten izenean* egindako iraultzarena izango litzateke, klase-dominazioaren berregituraketa bat besterik egingo ez lukeen elite batek zuzendutako iraultza. Hori da zapatistek baieztapen honekin botatzen diguten erronka politiko-teoretiko izugarria: "Gizon eta emakume, haur eta agure nahiko arruntak gara, hau da, errebeldeak, desegokituak, deserosoak, ameslariak" (La Jornada, Mexiko, 1999/08/04).

Autoemantzipazioaren (edo langile-klasearen autoemantzipazioaren) ideiarri ganoraz heltzeko ez dugu subjektu puru bat bilatu behar; aldiz, errebelioaren presentzia nahasia eta kontraesankorra egunerokotasunean bilatu

behar dugu. Inguruan -lantokian, kaleetan, supermerka-tuan- daukagun jendeari begiratu behar diogu, eta zeinahi dela ere beren kanpo-itxura, errebeldeak direla antzeman. Balizko autoemantzipazioaren munduan, inor ez da diru-diena. Diren hori ere ez dira gainera. Ez daude identitateetan geldirik, aldiz, gaintitu egiten dituzte, haiei darizkie, eta beraien kontra-eta-haratago mugitzen dira.

Gu guztiotan errotzen den asaldura, ukazio batetik abiatzen da, egiten duguna egitera behartzen gaituen determinazio arrotzaren ukazio batetik, benetan garenari kanpotik ezartzen zaizkion muga horien ukaziotik. Ukazio horretatik karga positibo bat ere sortzen da. Geure bizitzen determinazio propiorako bulkada hain zuzen, errebelioa bera adina ohikoa den bulkada. Kexatu eta protesta egiteko biltzen gara; baina hori baino gehiago: egunerokotasuneko pasadizoetan, adiskidetasunaren joan-etorrietan, lanean, edo eskolan edota auzoan sortzen den lagun-giro horretan, gure eguneroko arazoak konpontzeko moduak garatzen ditugu. Bada eguneroko hartueman bakoitzaren azpian komunismoaren bulkada bat, geure erara, agintari arrotzen eskuhartzerik gabe, auzolanean sortzera, eraikitza eta konpontzera bultzatzen gaituena. Harreman sozial guztiak ez dira harreman merkantilizatuak: merkantziaren forma hau gailentzen da bai, baina eguneroko bizitzak ere badu berekin harreman ez-merkantilizatuak, eta areago, antimerkantilistak ere eraikitzeko etengabeko prozesu bat. Ez dago kapitalaren *kanpoalde* bat, kontra-eta-haratago bat baizik¹³.

13 Hardt eta Negri (2002) zuzen daude heldu genezaiokeen “kanpoalderik” ez da-goela argudiatzean: guztiok gaude kapitalismoaren barnean. Beraiek nabarmentzen ez dutena zera da, barnean egoteak, ezinbestean, (kapitalismoaren izaera kontraesankorrari esker hain zuzen) etengabe kapitalismoaren kontra-eta-haratago mugitzen garelako esan nahi duela.

Mugimendua prozesu kontraesankorra da. Hartueman ez-merkantilizatuak eta lankidetzaren forma ez-kapitalistak ezartzen ditugu, beti ere forma menderatzaileen kontra, baina era berean forma menderatzaile horien kontra kutsatuak nolabait. Hala ere, kontraesan horien bidez, merkantziaren edo diruaren formaren kontra doazen, eta gizarte ezberdin baten proiektzioak oinarri bat sortzen duten hartueman modu ezberdinak antzematen ditugu: maitasuna, adiskidetasuna, errespetua eta kooperazioa bezalako izenak hartzen dituzten formak, partekatzen dugun giza-duintasun baten elkar-aitortza bat aurreikusten duten formak hain zuzen.

Iraultzarako antolatzea ez da orduan, edo ez hori ba-karrik behintzat, jende-talde jakin baten antolaketaren kontua, kontraesanaren polo baten antolaketarena baizik. Klase sozialen hizketara ekarrita: langile-klasea ez da jende-talde bat, harreman antagoniko baten poloa baizik (cf. Holloway, 2004a). Klase-antagonismoak kolektiboki eta indibidualki zeharkatzen edo zulatzen gaitu. Errebeldia-ren artikulazioari buruz pentsatzea, kapitalaren kontra-eta-haratago doan bulkada horretan, *diren horien* artikulazioari buruz pentsatzeaz gain, bide horretan *den horren* artikulazioari buruz pentsatzea ere bada. Antolaketa-forma funtsezkoa da. Autodeterminazio sozialera daraman mugimenduaren bulkada horrek (komunismoaren mugimendua), harreman-forma jakin batzuk sustatzen ditu nolabait¹⁴. Bestela esateko, kapitala harreman-forma bat dela

14 *Mundua aldatu botererik hartu gabe* antolaketaren kontuari arreta nahikorik ez eskaintzeagatik kritikatu izan da (Wright eta Hawkins, 2002; De Angelis, 2005). Agian, gehiago zehaztu beharrekoa zen harreman sozialei buruz hitzegitea, ezinbestean, gure interakzio edo elkarreragin sozialak zein eratara antolatuta dauden horri buruz hitzegitea dela. Hori horrela, Estatua harreman sozial kapitalista bat dela esatea, Estatuari buruz, berriazko antolaketa-forma kapitalista bat balitz bezala hitz egitea da.

esateak, kapitala, harreman soziala, jendearen elkarreragin soziala antolatzeke edo artikulatzeko modu bat dela esan nahi du. Kapitala harreman sozialen forma kontraesankor bat bezala ikusteak, harreman sozialak antolatzeke eta artikulatzeko forma antagonikoak, antikapitalistak, barnean dituela (edo horretan saiatzen dela behintzat) esan nahi du. Forma antikapitalista horiek gizarte berri baten forma enbrionarioak dira potentzialki (cf. Zibechi, 2003). Gizarte horren sorrera autodeterminazio sozialera daraman bulkadaren mugimendua da, iraultzara daraman errebelioaren mugimendua.

Ez dago antolaketa-eredu jakinik, baina badira borrokaren bidez garatzen diren zenbait printzipio; kapitalismoaren aurkako gaur egungo mugimenduaren ezaugarri diren printzipioak, eta halaber, borroka antikapitalistaren historia osoarenak ere badirenak. Erreferentzia puntutzat hartzen dudana antolaketa-forma nagusia, kontseilua, asanblada edo komuna da; Parisko Komunitate hasi eta Errusiako sobiet, zapatisten komunitate-kontseilu, edo Argentinako auzo-asanbladetarainoko errebelioen ezaugarri den forma. Baina kontseilu bidezko antolaketa-formen ideia horiek, hortxe daude mundu osoan gaur egun antolaketa-forma bezala, partiduek bizi duten krisiari erantzuten saiatzen diren mugimenduetan ere. Saiakera horiek beti dira halabeharrez kontraesankorrak eta esperimentalak; beti daude mugimenduan. Hala ere, ez gaitu hemen gehiago arduratzen gaur egungo mugimenduen analisiak, beren baitan dauden joera ezberdinak destilatzeak baino, kapitalarekiko antagonismoaren areagotze batek hain zuzen.

Autodeterminazioranzko bulkadaren antolaketa mugimendu lez pentsatzea da onena ziurrenik. Lehenbizi, kontrako mugimendu bat bezala: geure bizitza propioaren diseinuaren jabe izatek aldentzen gaituen guztiaren kontrako mugimendu bat bezala. Kapitala bereizketa-mugimendua da: egileok geure baitatik egiten dugun horrekiko bereizketa; egileon elkarren arteko bereizketa, kolektibotasuna gure kontroletik aldentzen duena, publikoa eta pribatua denaren arteko bereizketa, politikoa denaren eta ekonomikoa denaren artekoa, etab. Bereizte hori sailkatze-mugimendu bat da, definitze-mugimendu bat, euste-mugimendu bat. Bereizte-euste mugimendu horrek baztertzen gaitu guztiz geure egite propioa determinatzeko aukeratik.

Kapitala ukatzea bereizketa hori errefusatzea da. Esparru publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketa, ekonomikoa dena eta politikoa denaren artekoa, herrialde batekoak eta besteak diren herritarren artekoa edo serioagoa eta arinagoa denaren arteko bereizketa errefusatzea da. Kapitalaren kontrako mugimendua definitzearen eta sailkatzearen aurkako mugimendua da. Batzea da, bereizketak gainditzea, *gu*-a eratzea, *gu* ez-definitu bat ordea, *gu* ez-identitario bat. Autodeterminazioranzko bulkadak etengabeko mugimendua esan nahi du, etengabeko bilatze-esperimentatzea. Autodeterminazioranzko bulkada autodeterminazio berarekin nahastuz gero (autonomia politikoaren zenbait interpretazio edo nazio-autodeterminazioaren ideiak egiten duten moduan) edo osotasun nahia osotasuna berarekin; komunismoa izate geldu bezala pentsatzen badugu mugimendu lez pentsatu ordez, *gu*-a identitate berri bezala eta ez mugimenduan dagoen *gu* antiidentitario baten moduan; definitzearen aur-

kako mugimendu bat definitzen eta instituzionalizatzen badugu, orduan dena galduta egongo da. Kapitalaren kontrako mugimendua bere buruaren alde erantzia bilakatzen da: kapitalarekin adoste bat, elkar-onartze bat¹⁵.

Definizioaren kontrako mugimendu hori kapitalismoaren aurkako egungo borroketan nabarmena da: sexismoaren eta arrazakeriaren gaitzespenean, nazioen arteko mugak gainditzen dituzten manifestaldien eta ekintzen antolaketa, edo definizioaren ukazioa oinarritzat hartzen duten taldeetan eta topaketen antolakuntzan. Azpimarratzen dena definizio-eza da (ingelesezko party, festa edo talde moduan), ez antolaketa-aren definizio bat (hizkuntza bereko Party, Partidu bezala): ez da komunitatearengandik banantzea bilatzen, komunitatean integratzea baizik. Gerraren kontrako mugimenduaz, Italiako *centro sociale*-etaz edota Argentinako auzo-asanbladetak ari garenean, argi dago ez garela kidetasun formal huts batez ari. Sarri, eguneroko bizitzan talde horien praktikak, nahita edo nahi gabe, hain daude elkarrekin lotuak, non zail izaten den ekintza politikoa adiskidetasun ekintzetatik bereiztea. (cf. Zibechi, 2003).

Antolaketa errebeldea egunerokotasunean integratzeak¹⁶ bizitzaren eta nortasunaren hainbat aspekturi garrantzi han-

15 *Mundua aldatu boterea hartu gabe* liburuari ikuspegi neoliberalak izatea leporatzen dietenei erreferentzia. Bai gaur egungo borroka-erauntsia eta bai politika neoliberalak, gerraondo fordistako dominazio-eta-erresistentzia eskemaren krisiari emandako erantzun bezala uler daitezke, baina neoliberalismoak krisi honi eutsi nahi dion bezala, kapitalismoaren aurkako borrokak hura sugartzea nahi du. Marxismo ortodoxoak krisirik dagoenik ere ez du sinetsi nahi.

16 Erakunde klandestinoen ezaugarrietako bat da, hain zuzen, sasia ibiltze horrek berak zailtzen duela komunitate batean integratzea. Ikus adibidez Schillerek (2001) Alemaniako R.A.F. (Rote Armee Fraktion) erakundeari buruz egiten duen kontakizuna. Zapatisten esperientzia kontrako adibidea litzateke.

dia ematen zaiola esan nahi du; aldiz, antolaketa-modu partidistetan edo estatalistetan guztiz kanpo gelditzen dira. Mugimendu antikapitalistan maitasuna eta samurtasuna, bestelako harreman sozial batzuetan bezala, erdigunean kokatzen dira¹⁷. Hau esanguratsua da antolaketa-modu instrumentalek (boterea hartzea xede dutenek adibidez) beren eztabaidak eta ekintzak helburu horixe betetzera soilik bideratzen dituzten neurrian: beste guztia azalekotzat eta garrantzirik gabekotzat jotzen dute. Antolaketa pentsatzeak (eta ez *Erakunde*) mugarik ez dagoela esan nahi du: ez dago mugarik hor sar daitezkeen kezka pertsonalentzat eta pasioentzat; ezta borroka egitera bultzatzen duen zera horrentzat ere ordea: aurrerantz eta haziz doan ukazioa, zapalkuntza oro oihuka ukatzen duena: dena nahi dugu!

17 Néstor Lópezek kontatzen du nola Argentinako auzo-asanblada batean, 2001ko abenduko krisi garaian, bere txakurra galdu zuen adineko emakume baten laguntza eskararak asanblada bitan zatitu zuen ezker iraultzaile tradizionalaren (hauek zentzugabekotzat jotzen zuten bilaketa hura) eta txakur hura aurkitzeko antolatutako ziren gainontzekoen artean.

Subjektu iraultzailea eta autodeterminazioranzko bulkada

Autoemantzipazioaren ideiak, beraz, nonahiko errebelia batetik abiatzen garela esan nahi du, autodeterminaziorako nonahiko indar batetik, mugetatik kontra-eta-haratago nonahikotasunez mugitze batetik. Zentzu horretan, autoemantzipazioaren kontzeptua antiidentitarioa da ezinbestean¹⁸, dialektikoa nahitaez. Teoria eta praktika iraultzaile baten asmoa, errebelia hori, kontra-eta-haratago mugitze hori, destilatzea edo antolatzea da; kapitala baino haratago joanez berau arbuatuz. Azpimarratzekoa, zein ezberdina den abiapuntu hau iraultzaren kontzeptu leninista batenarekin alderatuta. Leninen langileria zeharo ezberdina da. Leninen (1975) langileak mugatuta daude, askatu ezinda bezala: borrokatzen dute bai, baina neurri batera arte soilik. *“Herrialde guztien historiak erakusten dute, langileria, bere ahaleginaren indarrez soilik, kontzientzia sindikal bat sortzeko gai baino ez dela”*. Gizartearen ba-

18 Identitatearen defentsaren garrantziari buruz ikus Rajchenberg (2003) eta Romero (2002).

rruan duten paperean harrapatuta, definituta daude. Norbaiten eskutik joanez gero soilik hautsi ditzakete beren mugak, hau da, iraultzaile profesionalen eskutik. Arrakala bat dago langile-klasearen gaitasunen eta beharrezkoa den iraultza sozialaren artean. Arrakala hori partiduak bete dezake, zapalduen izenean aritzen den militante talde diziplinatu eta arduratsu batek. Subjektu mugatu batetik abiatuz gero, iraultza posible bakarra *norbaiten izenean* egiten dena da, Estatuaren bidez egiten den iraultza.

Gure arrazoibidea, isolamendua edo bakartzea saihestu eta gehiengoa irabazteko, gure proposamenetan moderatuak izan behar dugunaren ohiko ikuspuntuari ere kontrajartzen zaio. Hemen ikuspuntua erabat kontrakoa da: moderazioak guztiok aspertu eta alienatu egiten gaitu; aitzitik, garrantzitsuagoa da eguneroko bizitzaren baitakoa den antikapitalismo erradikala interpelatzea. Egiazki, edozein mugimenduk protestaren oinarritzko edukia antolatzen saiatu behar du; eduki hori, agian, ez da denok ados egon gaitzekeen eskaera multzo bat bezala ikusi behar, gu guztion esperientziaren baitan den amorru eta laztura-oihu bezala baizik.

Horrek ez du esan nahi denak, bihotzez, antikapitalista erradikalak garenik, antikapitalismo erradikala zapalkuntza kapitalistaren eguneroko esperientziaren parte dela baizik. Antolaketaren arazoak ez datza berez mugatuak diren subjektuei kanpotik kontzientzia harraraztean, jada hor dagoen ezagutza azalaztean baizik, ezagutza hori egoera erreprimituan eta kontraesankorrean badago ere. Egitekoak badu antzik subkontzientean eta erreprimituta dagoen hura kontziente egiten saiatzen den psikoanalistenarekin. Baina ez dago psikoana-

listarik subjektutik kanpo: "psikoanalisiak" talde-autoanalisia izan behar du nahitaez. Horrek, hitz eginez egingo litzatekeena baino, entzunez egiten den politika dakar berekin, edo, hainbat hobe, hitz eginez-entzunez egiten den politika. Prozesu iraultzailea sumendi lokartuen erupzio prozesu kolektiboa da. Iraultzaren hizkuntzak eta pentsamenduak ezin dute izan sumendiak mendi huts bezala ikusten dituen prosa: poesia da ezinbestean; ikusi gabeko pasioak eragiten dituen irudimena. Ez da prozesu irrazionala, baina bestelako arrazoizkotasun bat darama; azaletik baino, erreprimitutako ezetzaren indar leherkorretik sortzen den arrazoizkotasun negatiboa.

Hemen zera nabarmendu behar da: ikusmolde hau ez dela, inolaz, mundu guztia "ona" denaren irudipen erromantikoan hezurramitzen, baizik eta bere gain hartzean klase-antagonismoa oinarritzat duen gizartean, antagonismo horrek guztiongan eragina duela, autokontradiktorioak egiten gaituela. Egia da Leninek esan bezala mugatuta gaudela, baina izate mugatu hori ez da betiereko izaera bat, muga horien kontra talka egiten dugula esan nahi du. Iraultza pentsatzeak mugak gainditzean datza, muina muga horiek gainditzeko bultzadan ipintzean, eta ez jendearen mугetan. Guztiok errebeldeak garela eta iraultza guztiongan dagoela, jendea subjektu kontraesankor eta autobereiztu bezala pentsatetik bakarrik ondorioztatu daiteke. Orain gizateriaren biziraupenagatik borrokatu eta hurrena supermerkatu joan eta gizadi horretxen suntsipenera daramatela dakigun prozesuetan parte hartzen dugun errebeldeak gara. Autodeterminaziorantzko bulkada ez da gizatalde jakin bat bereizten duen ezaugarria, gu guztiongan modu kontraesankor batean present dagoen zerbait baizik. Klasea

kapitalaren polo antagoniko lez ulertuz gero, autodeterminazioranzko bulkada hori antagonismo horren formula-zio bezala ikus dezakegu, ez klase-antolaketa hori militante profesionalen antolaketa bat bezala ikusiz, bulkada horren destilazio lez baizik.

Beste modu batera esateko: guztiok gaude, sarritan kontraesankorrak diren zati edo atal ezberdinez osatuak. Zati edo atal horiek zein modutara dauden artikulatuta da kontua. Pentsa dezagun adibidez armada batean: gauza ez da soldadu guztiak, berez, gaiztoak direnik; kontua hemen zera da: armadak kontzienteki, soldaduen nortasunaren zenbait alderdi bultzatzen eta beste batzuk ezabatzen dituela esaneko hiltzaile bihur daitezten. Berdin gertatzen da kapitalismoan ere. Kapitalismoa, bai sozialki eta bai indibidualki, gure kontraesanak oso suntsikorra den moduan artikulatzen dituen antolaketa-forma da. Antolaketa-forma iraultzailearen egitekoa zati edo atal horien artikulazio ezberdin bat eragitea da, sormenaren destilazioa eta autodeterminazioranzko bulkada sustatuko dituen artikulazioa hain zuzen.

Kontua ez da beraz subjektu iraultzaile puru bat bilatzea, geure kontraesan eta mugetatik abiatu eta horiek gainditzen asmatzea baizik. Gure mugen kontzientzia ustez mugotatik libre dagoen salbatzaile moduko (Jainkoa, Estatua, Partidua, etab.) baterantz proiektatu dezakegu, edo ezinbestean berekin dituen zailtasun guztiak geure gain hartuta, muga horien gainditzea autoemantzipazio-prozesu kolektibo lez pentsatu. Autoemantzipazio kolektibo hau sakoneko aldaketa bat helburu duen destilazio-prozesu bat bezala ikusi daiteke.

Ez ote dago hemen arrisku bat? Zer gertatzen da zapalketaren kontrako oihuak itxura faxista edo erreakzionario hartzen badu¹⁹? Zer gertatzen da inkontzientea den eta erreprimetuta dagoen hura sexista eta arrazista ere baldin bada? Antikapitalismo erradikala dominazioaren eguneroko adierazpenaren parte baldin bada, dominazio horren erreproduktzio-forma ankerrenak ere eguneroko esperientziaren parte direla ere egia da. Nola babestu horren aurka? Munduko herrialde askotan ematen ari den eskuineko politiken hazkundera ikusita, hori benetako arazoa da.

Zer gertatuko litzateke gure ustez jendeak nahi beharko lukeen hori nahiko ez balu? Hau da demokrazia burgesaren eta proletarioen diktaduraren arazoa. XIX. mendean bozkatzeko unibertsalaren aldeko mugimendua indartu zenean, burgesiaren arazoa honakoa zen: “nola egon ziur, gure ustearen arabera masek nahi beharko luketen hori nahi izateaz?” Bada, masak aldi berean barruan hartzen eta kanpoan uzten zituela ziurtatzen zuen artikulazio-modu baten bidez (demokrazia ordezkatzaila), eta artikulazio-modu hori derrigorrezko hezkuntzaren zabalkundearekin lotuz (gero masa-hedabideen eraginarekin osatuko dena); horra emandako erantzuna. Arazo horixe bera sortzen da berriro Errusiar Iraultzarekin: iraultzak langile-klaseari eman behar zion boterea, baina, zer gertatuko zatekeen langile-klaseak ez balu nahi izango, partiduaren ustez nahi behar zukeena? Boltxebikeen erantzuna izan zen

19 *Aufheben*-en (2003) esaten da nire interpretazioa “edozein erresistentzia-formaren ospakizun edo gorespen erraz” batean erortzen dela. Nire arazoibideak dio, garrantzitsua oihutik (edozein oihu) abiatzea dela, beti ere oihu hau autodeterminazioranzko bulkada moduan artikulatzeko xedearekin. Ikus baita ere Stoetzler (2005), Gegenanti-macht (2004), Figuerola (2003) eta Klopotek (2003).

partiduak erabakitzen zuela langile-klasearentzat onena zena: proletarioen diktadura orduan, partiduaren diktadura bilakatu zen, eta ados ez zeuden haiek burges erreazionariotzat joak izan ziren. Garai hartan, Pannekoek argudiatu zuen Lenin oker zebilela auzi honek “ildo zuzenari” atxikitzean zetzala ikustean; eta, aldiz, langileriaren borondatearen artikulazio-modu bezala ikusi behar zela hobesten zuen. Erabakimena lantegietako kontseiluen esku utziko balitz edo hauen bidez antolatuko balitz, orduan langileriaren interesak automatikoki gailenduko liriteke, beraien izenean apetazko erabakiak hartuz jardungo zuen inongo erakunderen beharrik izan gabe, burgesiak ez baitzukeen lantegietako kontseiluetan inongo eskuhartzerik izango.

Uste dut Pannekoek zuzen zebilela, eta auzia erabakitzeko gaitasunaren artikulazio-modu bezala hartu behar dela, partidu batek edo intelektual talde batek inposatutako “ildo zuzen” baten moduan baino. “Jendeak zuzena ez dena nahi izatearen” arazoa ez da “norbaiten izenean” harturiko erabakien bidez konpontzen, nahiz eta argi dagoen, zuzena zer denaren eztabaida autodeterminazioaren prozesuaren baitan eman daitekeela; argi dago Stalinen eta Sobiet Batasunaren historiaz geroztik, eta demokrazia burgesaren historiaz geroztik, “jendearen izenean” harturiko erabakiak ez direla inolaz terrorearen zabalkundearen edo hedapenaren kontrako berme. Hemen benetako arazoa dago. Oihu egiten dugu, baina bai guk eta bai gure oihuak, alde batetik, duintasunean oinarritutako gizarte emantzipatu baterantz zuzentzen gaituzten elementuak ditu, eta kontrako norabidean, zapalkuntza arrazista, sexista eta autoritario baterantz zuzentzen gaituztenak barneratzen dituzte aldi berean. Nola sortu dezakegu guk, kapitalismoak hain kaltetuak gaudenok, gizarte emantzipatu eta aske bat?

Nola iragaz geure bulkaden osagai suntsitzaileak (geureak, eta ez bakarrik eskuinaren bereizgarri direnak)? Erantzun posible bakarra: gure izenean erabakiko duen izate baten ideia baztertuz gero, autodeterminazioa eta borrokaren bidezko autohezkuntza prozesu bat eratzen dituen eztabaida artikulatu baten bidez. Artikulazio-forma antiautoritario batek oihuaren adierazpen autoritarioak iragaztera joko luke. Honek ez du oraino zuzentasuna bermatzen, baina bestek emandakoarekin baino, geure pozoi propioaz hilko garela ziurtatuko digu agian²⁰.

Autodeterminazioranzko bulkadaren “continuum”-a

Autodeterminazioranzko bulkadak, hortaz, ordezkapenaren kritika darama bere barnean, ordezkapenaren aurka eta haratago²¹ mugitzea. Ordezkatzeak definizioa, bazterketa eta bereiztea esan nahi du. Definizioa, ordezkaria eta ordezkatuak definituak izan behar dutelako, eta baita ordezkariak ordezkatuaren izenean jarduten duen denbora definitua izan behar duelako ere. Bazterketa, definizio guztiek baztertu egiten dutelako, baina baita eguneroko bizitzaren osagai asko (maitasuna, samurtasuna) ordezkatzea zaila delako ere. Bazterketa, baita, ordezkaria aukeratzekoan geure burua baztertzen ari garelako. Hauteskundeetan gure ordezkariak mintzatuko den norbait aukeratzeko gure lekua bete dezan. Ordezkariaren eta ordezkatuaren arteko bereizketa ezartzen dugun denbora izoztuz, iraupena emanez, eta geure burua subjektu bezala hurrengo hauteskundeetara arte baztertuz, non bereizketa berritzeko

21 Löwyk (2003 eta 2004) jorratu du demokraziaren auzia. Ikus baita Figueroa (2003).

aukera izango dugun beste behin. Gizartearen egunerokotasunetik kanpo dauden politikoen mundua sortzen da, politikaren mundua, non politikoen leinu bereizia bizi den bere mintzaera eta logikarekin, boterearen logikarekin. Horrek ez du esan nahi gizartea eta beronen antagonismoetatik guztiz aparte daudenik, hurrengo hauteskundeez, iritzi galdeketez eta antolatutako presio taldeez arduratu behar dutelako; baina beraien mundura, mintzaerara eta logikara egokitzen den hori bakarrik entzuten eta ikusten dute. Aldi berean, mundu teoriko eta akademiko paraleloa sortzen da, gizartea eta politikaren arteko eten hori islatzen duena: zientzia politikoaren eta kazetaritza politikoaren mundua, politikoen hizkera bitxia eta logika erakusten diguna, eta mundua beraien begi itsuekin ikustera eramaten gaituena.

Ordezkapena kapitalismoaren bereizte-prozesu orokorren zati da. Hutsegitea da pentsatzea, gobernu ordezkatzailea mehatxua denik kapitalismoaren arauentzat edota kapitala berarentzat. Demokrazia partehartzailea ez zaio kapitalari kontrajartzen, gehiago da kapitala beraren hedapen bat. Eta, gainera, kapitalaren kontrako gure oposizioan dominazio kapitalistaren printzipioa barneratzen du. Ordezkapena kapitalak inposatzen dituen gizabanakoaren atomizazioaren eta denbora eta espazioaren fetixizazioaren gainean eraikitzen da. Ordezkapenak ordezkariek eta ordezkatuak, zuzendariak eta zuzenduak banantzen ditu egitura hierarkikoak ezarriz. Ezkerrak buruzagiak (ordezkariak) traidoretzat hartzen ditu beti, baina ez dago traiziorik, edo hobeto esanda, traizioa ez dator buruzagiengandik, aldiz, ordezkapen prozesuan bertan ondo sustraituta dago. Geure buruari traizioa egiten diogu norbaiti "bete nire lekua, hitz egin nire orde" esandakoan. Autodeterminazioa eta "era-

baki nire orde" esatea bateraezinak dira. Autodeterminazioak egite sozialaren determinazioan parte hartzeko gure ardura geure gain hartzea esan nahi du.

Ordezkapena arbuizatzeak buruzagiak eta bertikaltasuna arbuizatzea esan nahi du. Ardurak geure gain hartzeak antolatze formetan horizontaltasuneranzko mugimendu bat darma berarekin. Hala ere, garbi dago forma horizontal horiek ez dutela nahitaez mugimenduaren kideen partehartze berbera bermatzen. Hain zuzen, justu kontrakoa estaltzeko balio dezakete, talde txiki batek kolektibo osoari dagozkion erabakiak informalki bereganatzeko. Haatik, autodeterminazioranzko bulkadak antolaketa-norabide bezala, elkarrekiko adeitasuna izatea eta ardura konpartituak hartzea dakar berekin. Elkarrekiko errespetua eta ardura konpartituak bai, baina ezjakintasun konpartituak ere autodeterminazioranzko bulkadaren parte dira, duintasunaren elkar-onarpenean oinarritutako gizartea sortzeko bidean; hau, ezinbestean, bilatze-galdetze prozesu bat da. Horrek, hitz egitean baino gehiago entzutean oinarritutako harreman bat suposatzen du edo, hobeto esanda, "hitz eginez entzunezko" hartu-eman, elkarriketa, ez monologoa. Era horretako harreman batean, inork ezin du uste erantzun zuzena duenik: arazoak gainditzea helburu amankomuna da, galderak eginez eta horiek garatuz egiten den mugimendua. "Galdetuz, bidea urratzen dugu" antolaketa-printzipio bat izatera heltzen da, eta horrek galdera eta zalantzen adierazpenak eta eztabaidak eragozten dituzten egitura bertikalen errefusatzea esan nahi du. Mugimenduak beti kanporantz, beti ezezagunerrantz, bultzatzen gaitu.

Demokrazia ordezkatzaileria autodeterminazioranzko bulkadarentzat eredu aproposa ez dela esateak, ez du, noski, demokrazia zuzenak arazorik ez duenik esan nahi²². Hor dugu demokrazia zuzena komunitate txikietara soilik egokitzen dela dioen argudio klasikoa. Nola osa daiteke milaka eta milaka pertsonen arteko asanblada bat? Eta, fisikoki posible izanda ere, ze zentzu izango zukeen? Komunitate txikietan ere arazo praktikoa ugari daude era aktibo batean parte hartzeko ahalmena edo nahia ez duten pertsonekin, baina baita aktiboagoak diren horiek eta adierazteko erraztasun gehiago dutenek eta abarrek hartzen duten neurri kanpoko pisuarekin ere.

Baliteke arazo horiek saihestezinak izatea, guztiz garatutako demokrazia zuzeneko sistema batek aurretik erabat askatutako pertsonen partehartzea eskatzen duelako. Baina gu ez gara oraindik erabat askatutako subjektuak, oinez ibiltzeko bata besteari laguntzen dioten ezgaituak gara, eta lurrera erortzen gara askotan. Batzuk besteak baino hobeto ibiltzen dira, dudarik gabe, eta zentzu horretan, batzuetan “abangoardia” deitzen den horren izateak saihestezina dirudi (cf. Seibert, 2004). Kontua da erdi-ezgaitu horiek, aurretik abangoardia bezala doazenak, besteok arrastaka lurrean utzi eta “ez larritu, iraultza egingo dugu, eta gero zuen bila etorriko gara” esaten diguten, nahiz eta geuk ez direla etorriko jakin, edota, aitzitik, pausoa moteltzen duten motelago goazeno laguntzeko.

22 Argentinan 2001aren ondorengo borroka uholdeak horizontaltasunaren, demokrazia ordezkatzaileraren eta demokrazia zuzenaren arazoengatik eztabaida aberatsa sortu du: ikus Bonnet (2003), Mattini (2003), Thwaites, Rey (2003 eta 2004) eta Zibechi (2003). Antolaketaaren ahalmen eta zailtasunen gaineko eztabaida bikain baterako ikus Colectivo Situaciones/MTD Solano (2002).

Baliteke demokrazia zuzena eredu bat edo arau multzo zehatz bat bezala hartzeak zentzurik ez izatea. Aldiz, norabideztzat hartu beharko genuke, gutako bakoitzak autodeterminazio kolektiboranzko duen grina ateratzeko borroka amaigabea bezala. Demokrazia zuzenak edo asanblarioak bilkura zehatz baten esparrutik haratagoko erabakiak hartu behar direnean eman izan duen erantzun klasikoa delegazioaren aldekoa eta ordezkapenaren kontrakoa izan da, delegatua izendatu dutenen aurrean erantzukizun zuzena eta berehalakoa duela azpimarratuz, hau da, zapatisten “agindu obedituz” delakoa. Delegatuak instituzionalizatzearen arriskua hor dago beti, praktikan ordezkari bihurtzeko eta aukeratu dituztenen lekua hartzeko. Horri guztiari aurrea hartzeko arauak (edo ezarri eta onartutako hainbat praktika) badira: aurkeztu beharko diren txostenen gainekoak, delegatuen txandaketak eta antzekoak. Baina arazoaren muina autoemantzipazio kolektiboaren prozesua da, *egitearen* jario sozialaren determinazio komunitarioan partehartze aktiboaren praktika. Horiek dira munduan hainbat eta hainbat talde aurre egiten ari diren arazoak, soilik esperimentazio eta asmakuntza-prozesu izan daitezkeen prozesuak.

Ezin liteke antolaketa-eredurik eta araurik eman, hain zuzen, autodeterminazioranzko bulkada galdera baten mugimendua delako. Garrantzizkoena ez da xehetasunetan sartzea, mugimenduaren bultzada baizik: bereiztearen eta ordeztearen aurka, komunitatearen ehundura indartuz eta ezezagunerantz mugituz. Zer egin dezakegu besterik, egun bizi dugun mundu ez-gizatiar honen kontra-eta-haratago doazen proiektioez osatutako mundu gizatiar baten amets horren atzetik izar utopikoa jarraitu baino?

Autodeterminazioranzko bulkada ez da organizazio baten edo erakunde mota zehatz baten ondarea. "Continuum" bat da. Norbaiti zerbait egiten laguntzetik, edota lagunei afori bat prestatzetik, mundu hobea sortzea helburu duten hainbat eta hainbat egitasmo sozial eta politikoetatik pasatuz, Errusiako sobietak, Argentinako auzo-asanbladak edo Chiapaseko komunitate zapatistak bezalako errebelio forma garatuagotaraino doan bidea zeharkatzen duen *continuum*. Etenaldi eta ezberdintasun guztiak gorabehera, denak dira mugimendu beraren parte, autodeterminazioranzko bulkada berberaren parte, harreman merkantilistik gabeko mundu bat sortzearen aldeko bulkada berberaren parte; diruak gobernatuko ez duen mundua, maitasunez, adiskidetasunez, eta bizitzearen eta hiltzearen gaineko gorabeherari aurrez-aurreko borroken egiteez osatutako mundua.

Alderdia, Estatua eta erantzunik gabeko galderak

Autodeterminazioranzko bulkada Estatuaren boterea hartzeko asmoarekin bateraezina da. Estatua, antolaketa bezala, autodeterminazioaren ukazioa da.

Leninismoaren bihotzean gezur ikaragarri bat dago: Estatuaren boterea hartzea autodeterminazioranzko bulkadaren gailurra denaren ideia; Estatuaren boterea hartzea, Errusiako sobieten mugimenduaren punturik gorena izan zela. Egia bestelakoa da: Errusian Estatuaren boterea hartzeak sobieten porrota eragin zuen; Estatuaren boterea hartzen saiatzea autodeterminazioranzko bulkadaren aurkakoa da. Sobieten Estatu baten edo "komuna motako Estatu"²³ baten kontzeptua gaitzesgarria da, absurdoa.

23 Aipua Lebowitzena da, eta esaldi berdina erabiltzen du Cruz Bernalek, baina antzeko argudioak defendatzen dituzte Callinicos (2003 eta 2005), Boron (2003 eta 2005) eta Hearsek (2003). Hitzen desberdintasun bat baino ez da, terminologia kontu bat? Ez, inola ere ez: antolatzeke bi modu desberdin kontzeptu bakarrean adierazteak autodeterminazioa bere aurkakoa bihurtzerakoan paper garrantzitsua jokatzeko du. Leninismoaren eta egungo teoria iraultzailearen arteko harremanari (edo harremanik ezari) buruz eztabaida garrantzitsu batetarako ikus Bonefeld eta Tischler (2003).

Autodeterminazioranzko bulkada Estatu-boterea hartzeko saiakeraren kontrako norabidean mugitzen da. Lehenbikoa komunitate burujabea ehuntzen hasten da, bigarrenak ehundura hori desegiten du.

Edozein errebelioren, handi nahiz txiki, gai nagusienetakoa honakoa da: gure mugimendua Estatuaren boterea hartzeko ahalgintza edo Estatuaren barruan eragina handitzera bideratuko dugu, ala ez? Jakina, hori eginez onura material handiak lortu ahal ditugu, baina garrantzitsua da Estatu gauza bat edo erakunde bat ez dela kontutan hartzea, harreman sozialen forma baizik, hau da, modu jakin batetako gizarte-harremanak eratzekeo prozesu bat, antolatzekeo modu batzuk inposatzeko prozesu bat. Estatu errebelioaren eta kapitalaren erreproduzioaren arteko berradiskidetze prozesua da. Aipatutako berradiskidetze errebelioa gizarte-harreman kapitalistekin bateragarriak diren formetan barneratuz lortzen da. Autodeterminazioranzko bulkada definizioaren aurkakoa izanik, Estatu bulkada hori baretzeko eta definizio moduetara bideratzeko saiakera da. Estatu autodeterminazioarekin uztartu ezina da, *beste batzuen izenean* egindako determinazio-prozesua delako. Estatuaren izatea, izate horrek suposatzen duen publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa, hauxe da azkenean: batzuk *beste batzuen izenean* erabakitzen dute²⁴. Estatu ordezte-prozesu bat da: komunitatea ordeztzen da²⁵.

24 Altxamendu zapatistaren hamaikagarren urteurrena ospatzean egindako Gobernu Onerako Asanbladan, Letiziaren parte hartzean dago zehaztuta estatuaren aurkako politika baten oinarria: "Guk geuk geure patua zuzentzeko adimena eta gaitasuna ditugu" (*La Jornada*, Mexiko, 02/01/2005, www.jornada.unam.mx/2005/01/02/036f1con.php web orrialdean ere ikusgai).

25 Hemen ez dago egun dauden komunitateen idealizaziorik. Komunitate gisa gizartearen autodeterminazio-potentziala hartzen dut, autodeterminazioranzko gizarte-bulkada.

Nola ez, *norbaiten izenean* horrek, komunitate mota bat osatzen du: Estatuak ordezkatzeko dituenek osatzen duten komunitatea, hiritarrak. Autodeterminazioranzko bulkadak pertsona desberdinen arteko lankidetzan oinarritutako komunitatearen sarea josten duen bitartean, bakoitza bere pasio eta ezaugarriekin, subjektibitate aktiboen aniztasunarekin, Estatu komunitate hori hautsi eta berrantolatzekeo barneratzen da komunitatean, indibidualizazioan eta abstrakzioan oinarrituz: pertsonak bere *egitetik* bereizi eta izaki indibidual abstraktu bezala osatzen dira. Antolamendu bezala ezinbestekoa da Estatuarentzat publikoa denaren eta pribatua denaren arteko, arlo politikoa eta ekonomikoa eta soziala denaren arteko bereizketa egitea: baina bereizketa hori *izatearen* eta *egitearen* artekoa da. Estatuak, jendearekin harremanak izatean, jendea *izate* gisa hartzen du, ez *egite* bezala; eta jendea, bere *egite* sozialetik baztertzen den neurrian, soilik izate abstraktu eta indibidual bezala ikus daiteke (hiritarrak). Eta *izate* horiek beren *egitetik* bereiztuak diren neurrian, hots, beren buruen kontra-erata-haratago mugitzetik, izaki definituak dira ezinbestean, mugatuak. Komunitatea ez da *egite* kooperatibo bezala hartzen, izaki autokontenitu, definitu eta mugatu gisa baizik. Abstraktuak direnetik ordeztuak izan daitezke, eta mugatuak diren neurrian ordeztuak izan behar dute, beraien izenean jokatzeko duen egitura batean barneratuak. Estatu, bere izaera hutsagatik, *izatea egitetik* bereiztekeo modu bat da, ordezte-prozesu bat, desmobilizatzeko-prozesu bat.

Baina, Estatuaz edo alderdiaz hitz egiten ari gara? Bietaz, ez dago desberdintasunik. Biak izaki mugatuekin aritzen dira. Autodeterminazioranzko bulkadaren kontzeptuak, ordea, jendea potentzialki mugagabea izatea dakar berekin; etengaitz.

be mugetatik, gure izate eta identitate propiotik haratago mugi gaitezen: izaki mugatuak, baina etengabe geure mugak ukatzen ditugun izaki mugatuak. Beste hitz batzuetan esanda, jendea egiletzat, sortzailatzat hartzen da eta ez soilik izaki bezala. Ideia horretan oinarrituta hitz egin dezakegu soilik iraultzari buruz guztiona den zerbait bezala. Hau da, iraultza autoeman-tzipazio gisa.

Biek, alderdiak eta Estatuak, komunitate bat osatzen dute baina komunitate horretan ez da lekurik komunitate-autode-terminaziorako. Bi kasuetan, komunitate-autodeterminazioa, izan dezakeen arriskuagatik, baztertu egiten da: Estatuaren kasuan kapitalismoak eskatzen duen menpekotasunarekin bateraezina delako; alderdiaren kasuan, “masak”, izaki muga-tuez osatuak, ez direlako fidagarriak gu bide zuzenetik era-man gaitzaten. Troskistek arrazoia dute Errusiako Iraultzaren patua ordezte-prozesu gisa aztertzerakoan: alderdiak klasea ordeztea, zuzendaritzak alderdia, buruzagiak alderdiaren zu-zendaritza. Ez dute ikusten, baina, ordezte-prozesu hori al-derdiaren egituraketan bertan eta Estatuaren boterea hartze-ko saiakeraren muinean dagoela²⁶.

Baina ez ote naiz bi gauza oso desberdin nahasten ari, Estatu burgesa eta iraultza osteko langile-klasearen Estatu? Estatu burgesaren kasuan, nirea jarrera zuzena izan daite-

26 Azken urtetan asko eztabaidatu da gizarte salaketa mugimenduekin harreman mota desberdina izango duen molde berriko alderdi berri bat sortzeaz. Adibiderik esan-guratsuenak Italiako *Rifondazione Comunista* edo Brasileko *Partido de los Trabajado-res (PT)* alderdiko sektore batzuk dira, baina hainbat herrialdetan daude mugimenduak norabide berdinean (cf. Del Roio, 2004). Hala ere Bertinottik (2004) 2004ko urrian egin zen Europako Gizarte Foroan argitu zuen bezala, alderdi horientzat gai nagusia, oraindik ere, langileen kontzientzia iraultzailerik eza da eta kontzientzia hartze horretan alderdiak jokatu beharreko rola.

keela argudiatzen da, baina ez langile-klasearen Estatuare-nean (cf. Boron, 2003). Nire erantzuna zera da: “langile-klasearen estatuak” berak ez duela zentzurik, langile-klasearen “balioaz” edo langile-klasearen “kapitalaz” hitz egitearen pa-rekoa dela. Estatu historikoki garatu den harreman sozialak izateko modu bat da *beste batzuen izenean* administratzeko helburuarekin, hau da, jendea bazterrean utziz. Asanbladaz Estatu-forma gisa hitz egitea, lagunak afaltzera sinpleki ardo botila bat ekarri dezaketelako gonbidatzearen parekoa da, salgaien elkartrukea balitz bezala. Hori kategorია ezberdi-nen arteko nahasketa bat da, ondorio politiko ikaragarriak dakartzan ikuspegi difuminatua; hain zuzen, autodetermi-nazioa molde autoritarioetan erortzea ahalbidetzen duela-ko, autodeterminazioranzko bulkadaren ezkutuko alderan-tzikatze bat. Iraultza osteko Errusiaz “sobieten Estatu” bezala hitz egiteak sobieten (autodeterminazioranzko bulkadaren adierazpena) Estaturanzko mugimendua (autodetermina-zioa baztertzen duen antolatze modua) ezkututzen du.

Hemen ez dago *baina baita ere*²⁷ batentzako lekurik. Ez dago lekurik esateko, “bai, autodeterminazio moduak eraiki behar ditugu, *baina* garrantzitsua da *baita ere* Estatuaren bidez borroka egitea”. Bi borrokatze moduek ezin dute bakean, bata bestearen ondoan, batera bizi, sinpleki, aurkako norabi-dean mugitzen direlako: Estatu autodeterminazioaren aurka egiten den etengabeko eskuhartze aktiboa da.

Ez dago *baina baita ere* batentzat lekurik, baina izan dai-teke *baina hala eta guztiz ere* batentzat? Zenbait egoeretan

27 Erreakzio adeitsuenetako batzuk “arrazoi duzu, baina Estatuaren bitartez egin-dako borroka ere garrantzitsua da” (cf. Hirsch, 2003 eta Bartra, 2003) modukoak izan dira.

zentzua izan dezake esateak: autodeterminazio-moduak erakitzen ari gara eta badakigu Estatu autodeterminazioaren ukapen-prozesu bat dela, *baina hala eta guztiz ere* egoera jakin horretan, Estatuaren bitartez borroka egiteak, autodeterminazioagatik egindako borroka babesteko edo sendotzeko baliabideak eskuratzen lagun gaitzakeela pentsatzen dugu? Galdera hori Estatuaren boterea hartzeaz egindako galderaren oso bestelakoa da, hasiera batean behintzat. Asko dira Estatuaren boterea hartzea baztertzeko dutenak, baina hala ere beraien borrokarentzat Estatuaren aparatua kontrolatzea edo bertan eragiten saiatzea garrantzitsutzat dutenak.

Hau arazo zaila da. Gutako gehienok ezin dugu Estatuarekin hartu-emanak izatea saihestu. Nolabait esatearren, Estatuarekin harreman "situazionala" dugu (cf. Colectivo Situaciones, 2001; Benasayag eta Sztulwark, 2000): gure bizi-egoerak jartzen gaitu Estatuarekin hartu-emanen, nola edo hala Estatuarekin borrokan egitera behartuta gaude. Egoera hau gure lanbidearen, langabezia sariaren menpe egotearen edo soilik garraio publikoak erabiltzearen ondorioz gerta daiteke. Nola daramagu hartu-eman hori eta berezkoak zaizkion kontraesanak? Adibidez, nik Estatu-erakunde batean irakasle bezala lan egiten dut: horrek nire jarduera kapitalaren erreproduzioa bultzatzen duten moduetara bideratzen du, erakusteko eta ebaluatzeko modu autoritarioetara esate baterako. Estatuarentzat lan egitean, edo beste edozein lanbidetan, kapitalaren erreproduzioan konprometitu nago aktiboki; baina hala ere autodeterminazioranzko bulkada indartzeko Estatu-formaren aurka borrokatzen saiatzen naiz. Kapitalismoan bizitzeak kontraesanaren erdian bizi garela esan nahi du: garrantzitsua da

kontraesan horiek onartzea, alfonbrapera *baina baita ere* batekin ezkutatu aurretik; garrantzitsua da egoera hauetan Estatuarekiko gure hartu-eman, Estatuaren barnean-eta-kontrako mugimendu bat bezala ulertzea, Estatuaren izateak berekin daramatzen harreman sozialen formen barnean-eta-kontra-eta-harago doan mugimendu bat bezala (cf. LEWRG, 1979).

Zabaldu al dezakegu kontzeptu hau Estatuarekin "situazionalak" ez diren hartu-emanetara, nahita bilatu eta aukeratuakoa²⁸? Esan al dezakegu adibidez: "gu, zentro sozial honetan, autodeterminatzailea den gizarte baten alde borrokatzen ari gara; badakigu Estatu Estatu kapitalista dela, eta ondorioz autodeterminazioaren guztiz bestelako forma; hala ere, nahiz eta hori horrela izan, gure udala kontrolatuz kapitalismoaren aurkako gure mugimendua indartu dezakegula pentsatzen dugu²⁹? Hori da, oinarrian, Italiako zenbait zentro sozialek, Brasileko, Argentinako eta beste leku batzuetako mugimenduek erabiltzen duten argudioa (cf. Hilary Wainwright, 2003).

Ziurrenik Estatuarekin borondatezko hartu-eman izatearen aldeko argudio horien balioa beti izango da baldintza zehatzen arabera: ez dago urrezko araurik, ezin dugu pu-

28 Estatuarekin hartu-eman "situazionala" eta hartu-eman "ez-situazionala" izatea ez da argi bereizten den zerbait. Unibertsitate publiko batetako irakasle bezala Estatuarekin hartu-eman "situazionala" dut, baina ez nintzen irakasle jai: hasieran behintzat aukera "ez-situazionala" bat izan zen.

29 Eztabaida prozesu honetan sortutako esperientzia esanguratsuenetako bat Erromako Garbatella auzoko *Centro Sociale*an izan zen, gizarte zentro horretako zuzendarietako bat (Massimiliano Smeriglio) da aldi berean bertako udal-barrutiko presidentea (Erromako XI. udal-barrutia).

rutasuna lortzen ahalegindu³⁰. Horrela, Chiapaseko zapatistek, adibidez, oinarri garrantzitsu bat jartzen dute Estatuaren inolako babesik ez onartzean, hirietako talde filozapatista ugarik munduko lurralde desberdinetan Estatuaren euskarrik gabe ezin dutela iraun onartzen duten bitartean (izan lan-gabezia-sari, ikasle-beka edo beste kasu batzuetan espazio bat okupatzeko eskubidearen legeko onarpena). Garrantzitsuena, behar bada, kontraesanak ez ezkutatzea da, zereginaren izaera antagonikoa “demokrazia parte-hartzailea” bezalako esamoldeekin ez ezkutatzea; *bai, baina hala eta guztiz ere* bat, *baina baita ere* batean ez bihurtzea³¹. Haatik, *hala eta guztiz ere* bat, *baina baita ere* batean bihurtzea da zehazki gure Estatuarekiko hartu-emanen jokoan dagoena. Estatuarekiko konpromisoa ez da izan ditzakeen ondorioekiko inoiz errugabea: beti darama berekin ekintza bideratzeko prozesu bat edo modu jakin batzuetan antolatzea (buruzagitza, ordezkapena, burokrazia), autodeterminazioranzko bulkadaren aurka doazenak³². Instituzionalizatzearen indar boteretsua

30 Hori puntu garrantzitsu eta zaila da, Seibertek (2004) *Gegenantimacht-ek* (2004), Smerigliok (2004) eta Bertinottik (2004) ekarritakoa. Estatuarekin horrelako hartu-emanak izatearen arriskua da, *hala eta guztiz ere* bat *baina hala ere* batean azkar bihur daitekeela, eta Estatu baina haratago joateko bulkada ezereztzen dela. Estatuarekin edozein hartu-eman izateak, buruzagiak edo ordezkariak mugimendua osatzen dutenetatik bereiztera joko du. Hauteskundeen gaiari buruz ikus Albertani (2003) eta Figeroaren (2003) iruzkinak.

31 Bartraren metafora (2003: 134) Estatuarekin ditugun hartu emanetan kondoi bat erabiltzeko gomendatuz oso iradokitzailea da, baina instituzionalizatzeak duen indarra gutxiesten du.

32 Egoera hauen zailtasun praktikoa hauetxek onduz da garrantzitsua azpimarratzea Estatuaren harreman sozialaren berariazko forma kapitalista bat dela. Ideia hau nahasgarria izan daiteke Estatuaren izaera kontraesankorra erakusten duten ikerketetan: ikus Mabel Thwaites Rey (2004). Estatu (gizarte antagoniko batean edozein gertakari bezala) kontraesankorra izateak ez du esan nahi (kapital, balio, diru bezala) harreman sozialaren berariazko forma kapitalista bat edo gizartearen autodeterminazioranzko bulkada geldiarazten duen forma bat ez denik.

ezin da inoiz gutxietsi, mundu guztiko esperientziek behin eta berriro erakutsi duten bezala.

Estatuaren izaera bera aldatzen ari dela da kontutan hartu beharreko beste puntua (ez soilik nazio Estatuetan, baita Estatuaren izaera berean ere). Estatuak errepresiboak bihurtzen ari dira leku guztietan, herriak kontrolatuak egotearen iruditik gero eta urrunago daude. Estatuaren barruan-eta-kontra-eta-haratago dagoen borroka beharra beti agerian dagoen bitartean, Estatuari bizkarra ematearen ideia (zapatistek egin antzera) gero eta erakargarriagoa bihurtzen da³³. Estatuan zentratutako politiken inguruan mundu osoan zabaldua dagoen etsipena ez litzateke arazo bezala hartu behar, aukera gisa baizik³⁴.

Estatuaren kontrola irabazteko saiakera autodeterminazioranzko bulkadarekin bateraezina da. Hala ere, gaur egungo errebolta mugimendu asko edo gehienek bi norabideak uztartzen dituzte: mugimendu zapatistan, edo orokorrean neoliberalismoaren aurkako mugimenduetan, Estatuaren boterea bereganatzea pentsatzen dutenak, Estatuaren antolaketa-forma gisa baztertzen dutenekin batera ari dira lanean. Hori ongi dagoela iruditzen zait. Erabateko aldaketaren aldeko edozein mugimendu jarrera eta antolaketa-forma desberdinen nahas-

33 Kritika batzuk, Mathers eta Taylorrenak (2005) bezala, edo Hirsch eta Wainwrightenak azkenaldiko eztabaidetan argudiatzen dute *Mundua aldatu boterea hartu gabe*, lehenago nik *In and Against the State* (LEWRG, 1979) lanean nituen jarreraren berrikuste soila dela. Ez dut uste hala denik, nahiz eta agian enfasian aldaketa bat egon Estatuaren izaera aldakorra agerian jartzean.

34 Ez dut uste Rhina Rouxek (2003) dioen bezala, “politikaren berreskurapena” behar dugunik. Gehiago da gizarte autodeterminazioranzko bulkada konfidantzaz gartzea; “antipolitikatza” ulertzen dudana.

keta izango da, eta izan behar luke. Nirea ez da ezker-muturreko jarrera sektarioa: nire argudioa mugimendu baten barneko zati bezala hartzen dut, ez argudio zatitzaile edo baztertzaila bezala. Ideia ez da ildo zuzen berri bat sortzea. Hain zuzen mugimendua zabala delako eta guztiok nahastuta gabiltzalako (edozein izanda ere gure ideologiaren purutasun maila) da garrantzitsua argi eztabaidatzea. Borroka Estatuaren boterea hartzera bideratzen dutenek Estatuaren erreferentzia nagusi bezala baztertzen dutenekin topo egiteak ez liguke eragotzi behar zera garbi adieraztea: bi ikuspegien artean tentsio izugarria dagoenaz jabetuta behar genukeela eta bi korranteek aurkako norabideetara garamatzatela³⁵.

Erabilitako argudioa, autodeterminazioranzko bulkadaren eta *norbaiten izenean* egiten den mugimenduaren arteko desberdintasunean zentratu da. Baina *norbaiten izenean* egiten den mugimenduan ezer txarrik ez dagoela erantzun daiteke, nahi izan dezakegun guztia dela, aurreranzko urrats posible bakarra, mundua aldatzeko modu praktikoa bakarra. Zer du txarretik *norbaiten izenean* egindako iraultzak, pobreen bizi-baldintzak hobetzen baditu eta Ipar Amerikako inperialismoaren aginduen aurrean buruzagi politikoen ia erabateko belaunikatzearen aurka adierazten bada? Baliteke perfektua ez izatea, baina ez da erabat irrealia zerbait hobeari esperoan egotea?

35 Garbia da Gizarte Foroa mugimenduaren bilakaeran dagoen tentsioa, adibidez 2004an Londreseko Europako Gizarte Foroan “horizontalen” eta “bertikalen” artean izandako talka. Antzeko baieztapena egin daiteke Venezuelari buruz: mundua aldatzeko estatuaren aurkako ikuspegia izateak ez du esan nahi, sinpleki, Venezuelen Estatuak bideratutako prozesua gaitzestea, kasu honetan agerian dauden borrokarako molde desberdinen elkarrekintzak sortzen dituen tentsio eta arriskuez adi egotea baizik. Itxuraz haratago, indar gidaria ez da Estatuak, herri matxinada baizik, eta Estatuak errebelio honekin duen hartu-emana kontraesankorra da kasurik hoberenean. Guztiz bestelako ikuspegi baterako ikus Tariq Ali (2004).

Norbaiten izenean egindako iraultzak duen arazoa da autodeterminazioranzko bulkada ezereztea eragiten duela beti. *Norbaiten izenean* egiten den mugimendua, berdindu berrondate onena badu ere (hasieran behintzat), beti besteen *egitearen* determinazio bat dakar, eta, ondorioz, autodeterminazioranzko mugimendua itotzea: ezin du jendeak bere buruarentzat ona zer den jakitean konfiantza izan. Mugimendu horrek beharbada pobreen bizi-baldintzetan aurrerapenak eragin ditzake (oso garrantzitsua dena) eta aldaketa esanguratsuak sortu gizarte-egituran (Errusiako Iraultzarekin eta XX. mendeko beste iraultzekin gertatu moduan), baina zapaltzaila da ezinbestean, autodeterminazioarekin gatazkan jartzen den neurrian, egun den edozein demokrazia zuzen nahitaez mugatua den neurrian, jendearentzat onena zer den badakitenek hartutako erabakien mendekoa den neurrian³⁶. Gu-txienez, desberdintasunik handienak desagerrarazi dituela argudiatu daiteke eta inperialismoak gizadia suntsitzeko burututako erasoaldiaren aurkako babesa dela. Zerbait hobea espero al dezakegu? Bai, baietz uste dut: oraindik ez da giza-duintasunaren ametsari uko egiteko garaia.

“Dena oso polita, oso fina *norbaiten izenean* egiten den iraultza eta *iraultzaren* artean egiten duzun bereizketa... baina... ez al duzu ahaztu ekintzez eta erabakiez dihardugunean, bortxa eta indar fisiko kontua dela? Nahi ditugun proiektu edo errebolta autodeterminatzaile guztiak gara ditzakegu, baina behin buruzagi-klasearentzat deseroso bihurtzen direnean (ezta mehatxagarri ere), hark

36 *Norbaiten izenean* egiten den iraultzaren aldeko ideien defentsarako ikus Fernández Buey (2003).

ejertzittoa eta polizia bidaltzen ditu eta hor amaitzen da guztia. Horregatik kontrolatu behar dugu Estatuak, polizia edo militarren errepresioa gerarazteko. Horrelakoak dira gauzak mundu errealean. Beraz... zein da, irakasle, arazo honi ematen diozun erantzuna³⁷?”

Neure kolkorako ari naiz, ahopean ... eta ez dut erantzunik; baina hiru puntu proposatzen ditut. Lehena: Estatuak kontrolatzeak ez du ezer bermatzen. Estatuak langile-klasearen *izenean* kontrolatzeak (edozein dela ere bere definizioa) ez du txikiagoa egiten, ezinbestean, langile-klasearen eta Estatuaren arteko tartea. Estatuak zapaltzailea izaten jarraitzen du, eta poliziak edo armadak, langile-klasearen *izenean* gobernatzen duen Estatuaren nahiekin bat ez datorren langile-klasearen edozein ekintza zapaltzera joko du. Baliteke ezkerreko gobernuak, eskuineko gobernuak alderatuz, proiektu autonomoei edo erreboltei espazio gehiago uztea; baina, oinarrian dagoena ez da gobernuak nola osatuta dagoen edo gobernuak dauden politikoei begi oneko zer duten, indar sozialen arteko oreka baizik.

Bigarrena: Zentzu gutxi du kapitalismoa militarri eraitzeko ejertzito iraultzaile bat antolatzeak, batetik, ia ezinezkoa litzatekeelako teknologia militar dun indar bat garaitzea, eta, bestetik, ejertzito batek ezinbestean ejertzito guztien hierarkiak, balioak eta logika erreproduzitzen dituelako. Autodeterminazioranzko bulkadatik urrunago ez dago ezer antolaketa militarra baino.

37 Hau eztabaida publikoetako puntu garrantzitsu bat da, hainbat kritikok ere aipatu izan dutena: Almeyra (2002), Boron (2003), Manzana (2003) eta zorrotzeta *Geenantimacht* (2004).

Hirugarrena: Oraindik Estatuaren indarkeriarengandik nola babestearen arazoari aurre egiten ari gara. Ziurrenik indarkeria horri aurre hartuko dioten disuasio-moduetan pentsatu behar dugu. Aurre egiteko modu bat defentsa armatua da noski. Zapatistak Askapen Nazionalerako Ejertzito Zapatista bezala antolatu izana adibide garrantzitsua da: ez dira Mexikoko armadari borroka militar batean irabazteko gai, baina bai hari indar militar zuzena erabiltzeko ideia “oso erakargarri ez” egiteko. Hala ere, “oso erakargarri ez” izatearen ideia ezin da arlo militarrean indarra indarraren aurka erabiltzea bezala bakarrik ulertu. Mexikoko armada-erantzut interbentzio militarra “ez oso erakargarri” bihurtzen duena ez da zapatistek ejertzitoaren indarkeriari aurka egiteko erabiliko luketen arma bidezko indarkeria; zapatistek beraien komunitateekin, orokorrean Mexikoko komunitateekin, eta mundu osokoekin, ehundu dituzten gizarte hartu-emanen indarra baizik³⁸. Beraz, indarkeria egoeraren disuasio-modu hori ezin da defentsa armatu soil bezala ulertu, (nahiz eta hau beharrezko parte izan daitekeen), baizik eta, funtsean, une bakoitzean, gizartean, harreman sozialen sareak duen dentsitatearen arabera. Baina horrek berriro ere gure argudio nagusira garamatza: gizartea aldatzeko mugimendu baten autodefentsarako ezinbestekoa dena, gizartean duen integrazio maila da; eta integrazio horrek antolatze bat eskatzen du, Estatuak suposatzen duen bereizte-prozesuaren aurka-eta-haratago arituko den antolaketa.

38 Lorenzanok (1998) egoki azpimarratzen du zapatistak, ejertzito bat baino gehiago, komunitate armatu bezala ikustearen garrantzia.

Egitea lanaren kontra

Autodeterminazioranzko bulkada ordezkatzeko-sistemaren kontra-eta-haratago mugitzen da, Estatuaren kontra-eta-haratago, eta batez ere lanaren kontra-eta-haratago.

Nahiz eta demokraziaren eta asanbladen antolaketaren gaiek arreta handiagoa piztu, autodeterminazioranzko bulkada garatzeko ahalegin guztien azpian datzan arazo nagusia, lanaren kontrako *egitearen* mugimendua da. *Lana* lan alienatu lez ulertuz gero, kontrolatzen ez dugun lan bat bezala, argi eta garbi azaltzen da autodeterminazioranzko bulkada lanaren kontrako bulkada dela³⁹, *egite* sozialki burujabearen emantzipazioranzko bulkada, *egite* sozialaren jarioaren kontrol kontziente baterantz aurrera egitea. Autodeterminazioranzko bulkada, xingleki esan-

39 Autodeterminazioranzko mugimendua lanaren kontrako bulkada dela esateak ez du inolaz ere esan nahi gizarte burujabe bat jauja-herrialde bat edo kristoren pagotxa izango zenik, non oilasko erreak geure buruen gainetik hegan ibiliko ziren, zerutik noiz jaitsiko zain: “lana egitea” beharrezkoa litzateke gizartearen erreprodukzioa bermatzeko, baina izanik gizarte hau egingo genukeen hura beharrezko edo desiragarri zer den erabakiko lukeena, “beharrezkoa” edo “desiragarria” litzatekeenaren artean bereizketa argirik egin gabe, eta beraz, “lanaren” eta “jolasaren” arteko bereizketa argirik gabe.

da, gure *egiteko-ahalmenaren* garapena da, (gainetik) *ezartze-ko-ahalmenaren* kontra-eta-haratago doan *egiteko-ahalmenaren* bulkada.

Demokraziak, bere egituren “zuzenekotasun” maila edozein dela ere, ez du eragin handiegirik izango kapitalismoak berea duen *egitea* lana bezala antolatzearen aurka egin ezean. Horregatik da garrantzitsua demokraziaz bakarrik ez, komunismoaz ere pentsatzea; ez soilik jendeaz, klaseaz ere baizik; errebolta bakarrik baino, iraultza ere pentsatzea; eta ez aldaketa sozialerako prozesua iraultzaile profesionalek goitik akuilatu-tako prozesua bailitzan; gizartean *egitearen* oinarrizko antolaketa eraldatzen duen aldaketa sozial bezala baizik⁴⁰. Arrazoitu liteke demokraziaren erradikaltzeak, ezinbestean, *egitearen* antolaketan den ordena autoritarioa zuzenean ezeztatzea eramango lukeela, hau da, kapitala ezeztatzea. Baina, sarritan, diskurtso erradikalak demokrazia nabarmentzen du oso, eta batera ez lanaren antolaketa. Horrek, gizarte kapitalista batean, *egitea* lana bezala antolatzen den gizarte batean, demokrazia erradikala posible denaren irudipena ekar lezake. Gainera, eta hau garrantzitsua da, demokrazia erradikalaren aldeko borroka *egitearen* eta lanaren arteko borrokatik bereizteak langile mugimenduaren esperientziaren eta tradizioaren parte diren amorrua eta erresistentzia aintzakotzat ez hartzea esan nahi du. Komunismoa gizarte autodeterminatzaile bezala ulertuz gero, demokraziak komunismoa esan nahi du: hau ximplea da, jakina, eta baieztatu egin behar da esplizituki.

40 Gai hau *Rebeldia* aldizkari zapatistan eztabaidagai izan da: Rodríguez (2003), Holloway (2003). Iruzkina interesgarri baterako, ikus Huerta (2004)

Egitea lanaren aurkako etengabeko errebolta dago. Litekeena da guztiok, kolektiboki ala bakarka, gure jardueren kanpo-determinazio baten aurkako nolabaiteko borroka-formaren batean engaiatuta egotea; lanera berandu iristean edo lana egiteari uko egiten diogunean, sabotajeak egitean, geure bizitza geuk egitea nahi dugunaren arabera moldatzen saiatzean eta ez diruaren aginduen arabera, gure *egitearen* antolaketarako ekimen alternatiboak sortzeko elkartzean edo lantegiak eta bestelako lantokiak okupatzean. *Lana* lan alienatu bezala existitze hutsak, bere alienazioaren kontra ahalegintzen den *egitearen* eta lana beraren arteko etengabeko tentsio bat dauka berekin. Horrek ez du *egite* puru bat dagoenik esan nahi, ahistorikoa, noiz burujabetuko zain; aldiz, alienazioa bere kontrarik gabe ezin dela existitu nabarmentzen du, hau da, alienazioaren aurkako borrokarik gabe. Lan alienatua ezin da izan bere antitesirik gabe, alienazioaren kontra borrokatzen den *egiterik* gabe. *Lana* gure abiapuntutzat hartu eta lan alienatu edo soldatapeko lan bezala ulertzen badugu, orduan, berebiziko tentsio hori galdu egiten da⁴¹.

Argi dago *egitea* (*doing*) lanarekin (*labour*) etengabeko gatazkan dagoela. Konturik zailena zera da: lanagandik haratago mugitzeko aukerarik ba ote den iraultzaren bidez kapitalismoaren ezeztatzea gertatu baino lehen. Ikuspuntu tradizionalaren arabera lantegiak okupatzea iraultza-prozesuaren parte litzateke, baina *lan abstraktua* (salgaien ekoizlea) ezeztatzeak

41 Beste hitz batzuekin, baina, argudio berdina erabili daiteke, ez “egiteari” eta “lanari” buruz hitz egiterakoan soilik, baizik “lan ez-alienatua” edo “alienatua” terminoak erabiliz, baina lanaren eta beste *egitearen* era (jolastea adibidez) batzuen arteko bereizketa bera ere, ziurtasun osoz, alienazioaren ezaugarrietako bat da. *Egitearen* kontzeptuari buruzko eztabaida baterako, ikus *Wildcat* (2003), Imhof (2004), Reitter (2003), *Aufheben* (2003), eta Rooke (2002).

merkantzia oinarri duen ekonomia deuseztatzea eta ekonomia planifikatu bat sortzea eskatuko luke; horrek, halaber, aurrez, Estatu-boterea iraultzaren bidez konkistatzea suposatzen du. Hain zuzen, esperientzia historikoak kontrakoa iradokitzen du: lan-prozesuaren eraldaketa erradikal baten erabateko ausentzia izan da Estatu "komunisten edo sozialisten" ezaugarririk nabarmenena. Porrotaren errua, noski, kasuan kasuko arrazoi historiko partikularrei egotz dakioke, baina funtsezko arrazoi bat dagoela ere argudiatu daiteke: hau da, oinarrizko gatazka bat dagoela *norbaiten izenean* egiten den iraultzaren eta *egitearen* autodeterminazio sozialaren artean; lehenak, noren izenean burutu den haiexen zapalkuntza dakarrelako, derrigorrez. Autodeterminazio sozialak ezin du Estatuarekin bat etorri; azken hori harreman sozialen forma moduan determinazioaren eta gizartearen arteko bereizketa delako.

Ikusmolde tradizionalaren zailtasunak azpimarratzeak ez du, ordea, alienazioan oinarritutako gizarte batean, *egite* ez-alienatu bat irudikatzearen arazoa konpontzen. Kontua da *egitearen* autodeterminazio sozialak berekin behar duela *egitearen* jario sozialaren kontrol sozial kontzientea. Hau zatika egin al daiteke, adabakitan bezala? Kooperatibak sortzea eta okupatutako lantegiak kooperatiba bihurtzea langile-klasearen borrokaren alderdi bat izan da luzaroan. Baina kooperatiba horien mugak zein diren argi dago: merkatuarentzat ekoizten duten heinean, edozein enpresa kapitalistak ekoizten duen baldintza beretan produzitzera behartuta daude. Arazoa ez dago enpresaren jabegoan, *egite* ezberdinen artikulatzeko moduan baizik. *Egite* horiek merkatura begira antolatzen badira, egileek beren *egite* propioaren gaineko kontrola galtzen dute eta hau *lan abstraktu* bihurtzen da.

Kooperatibak sortzeak ez du ezer konpontzen, aldi berean *egile*-taldeen antolaketa eztabaidatu ezean. Autodeterminazioranzko mugimendua ezin daiteke, soilik, jardun partikularren gisa ikusi; aldiz, jardun horien arteko artikulazioa jaso beharko du ezinbestean: *egitearen* jario sozialaren berrartikulazioa (ez produkzioarena bakarrik, produkzioarena eta zirkulazioarena baizik). Autodeterminazioranzko bultzada ezin da ulertu autonomiak sortzearen jardun gisa, aldiz, autonomia horietatik haratago mugitzea leharke ezinbestean. Lantegiak okupatzea eta kooperatibak sortzea ez da nahikoa jarduera hori mugimendu baten parte izan ezean, hau da, aldi berean haratago zabaldu ezean: jendearen arteko artikulazio berriak sortzerantz kooperatibaren proiektu espezifiko batetik haratago.

Fabriken okupazio-uholde bat (eta kooperatibak ezartzea) errebelio mugimendu zabalago baten parte da. Argentina da horren adibide berriena eta agerikoena. Kontua da mugimendu horrek zein norabide hartzen duen: Estatuantz, enpresen nazionalizazioa eskatuz adibidez, edo Estatutik kanpo legokeen ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko sare bat finkatzerantz. Hori izan da eztabaidagai Argentinan okupatutako lantegi asko eta askotan. Gizartearen eta lan-prozesuaren eraldaketaren ikuspegitik, argi dago Estatuaren aldeko hautua egiteak, nahiz eta agian horrekin lanpostuak mantentzen diren, ez daramala aldaketa erradikal batetara. Bali-rudike aurreranzko bide bakarra *egite* alternatiboak etengabe haratago mugitzearen zabalkunde progresiboaren bidez urratzekoa litzatekeela; *egite* alternatibo horiek ez isolatutako proiektu autonomo bezala hartuta, artikulazio-forma berrien (eta esperimentalen) lotune moduan baizik. Horrela bakarrik izan daiteke planifikazio soziala autodeterminazio sozialaren

adierazpen; hau da, behetik datorren mugimendu baten parte bezala, ez Estaturantz daraman bulkada baten parte, baizik eta komunen komuna baterantz, asanbladen asanbladarantz edo komunitarismo berri baten sorrerarantz daraman bulkadaren parte (cf. Palomino, 2005).

Argudio hori ez da, inolaz ere, “baserri-giro inozora” itzul gaitzen proposatzen duen komunismoaren ikusmolde erromantiko baten aldekoa⁴². Ez naiz ari ordenagailuak edota hegazkinak alde batera uzteaz, eta argi dago, gainera, jarduera horiek esparru lokaletik askoz haratago doan *egitearen* sozializazioa eskatzen dutela. Autodeterminazioaren mugimendua mundu mailako komunismorantzko bulkada bezala uler daiteke bakarrik, gure *egiteko-ahalmenaren* eta *egitearen* jario sozialaren determinazio kontzientea bultzatuko dituen antolaketa-forma baterantzkoa. Hizkera klasikora ekarrita, esan liteke gakoa dela harreman sozialak produkzio-indarren garapenera nola egokitu. Garapen teknologiko konplexua kontrolatzeko nolabaiteko Estatu baten beharra dagoela diotenak, ez du ikusten Estatu harreman sozialaren forma baten (kapitalaren) aspektu bat dela, garapen teknologikoa eta gauzak egiteko gure ahalmenaren garapena oztopen dituenak, gure *egiteko-ahalmena*.

Indibidualki ala kolektiboki, bere *egitea* kapitalaren arauetatik askatzen saiatzen denak aurre egin behar dion lehen arazoa biziraupenarena da. Landa-eremuko taldeek (EZLN

42 Hala ere, “mundu errealean” (hala diote) trenak eta lantegiak ibilarazi behar dira, ordenagailuak egin. Jarduera konplexu horiek estatuaren kontrol zentralizatua behar dute (cf. Bonnet, 2003). Haatik, ez dut arrazoirik ikusten jarduera hauek kontseiluen kontseilu baten bidez demokratikoki antolatu ahal ez izateko. Gauza guzti horiek egiteko Estatu behar dugunaren eragozpenak, harreman-sozial forma (Estatua) eta bete beharreko funtzioa nahasten ditu (trenak ibilaraztea) (cf. Bonefeld, 2003).

adibidez), landa-lurren gain duten kontrolean oinarritzen dira nolabaiteko biziraupen-maila bat bermatzeko; baina hirietan, errebeldeek ezin dute maila horretara ere iritsi. Hirietako taldeek, eskuarki, bizirautea lortzen dute, bai Estatuaren laguntzetatik (bartzuetan indarrez lortuta, Estatu langabetuei dirua ematera behartzeko, errepideak moztu eta blokeoak egiten dituzten piketeroen kasuan bezala), bai noizean behingo edo egonkorragoa den lanen bat eta Estatuaren laguntzen arteko konbinazio batetik. Horrela, hirietako talde asko, erregulariki enplegatutako jendearen eta nahita edo halabeharrez lanik gabe egon eta, sarritan, beren biziraupena Estatuaren laguntzetatik edo hala-moduzko salerosketaren batetik lortzen dutenen arteko elkartzeko nahaspilatsuek osatzen dituzte. Kapitalaren indarrekiko dependentzia-forma horiek, kontrolatzen ez ditugunak, aitortu beharra dugun arazoak eta mugak sortzen dituzte.

Balirudike gure *egitearen* emaitzen (produkzio-baliabideen) kontrolaren gaiari aurrez aurre jarrita gaudela, ezinbestean. Kapitala gure *egitearen* emaitzen jabe egiten den neurrian, eta, beraz, produkzio-baliabideena, gure biziraupen materiala kapitalarekiko dugun mendekotasunak baldintzatzen du. *Egitea* eta *lanaren* borrokaren erdian jabetzaren aurkako borroka dago; ez gauza bat bailitzan, egunero berrezartzen zaigun gure *egitearen* emaitzen apropiazio-prozesu baten moduan baizik. Kapitalaren aurkako edozein borrokaren giltzarria ukazioa da, hau da, gure *egitearen* emaitzaren apropiazioa ametitzearen ukazioa. Baina ukazioari eusteko bide bakarra, zabaltzen doan artikulazio-sarean ematen diren *egite* alternatiboz lagunduta egotea da. Bestela esateko, *egitearen* forma alternatiboen garapena ez dago iraultzaren

ondorenerako uzterik: iraultza bera da. Erresistitza etengabe kontra-eta-haratago mugitzean alternatibak sortzea da⁴³. Bestela aurrera nola egin zaila da antzematen.

Autodeterminazioa, Denbora eta Historia

Autodeterminazio sozialeranzko bultzadaren oztopo bezala altxatzen diren Estatuak, ordezkapena, lana, eta fetitxe bihurtutako egitura guztien aurka-eta-haratago mugitze hori, beti da, nahitaez, aurka-eta-haratago mugitze esperimentalak. Beti da galdera, zalantzarik ekintza beti, dogmen aurkakoa, beti egonezin, eta beti kontraesankorra eta osatugabea. Aurka-eta-haratago mugitzea identitateen eta instituzioen aurkakoa da nabarmen, errebolta jario sortzailea gelditu edo mende hartu nahi lukeen edozein gauzaren aurka-eta-haratago mugitzea den zentzuan. Horrek ez du esan nahi, guk, identitateak ukatzen ditugunik soilik, baizik eta edozein identitate berrestea (indigena, emakume, gay edo beste edozein), identitate haratago joatearen momentu bat bezala ikusia izango dela; indigenak gara baina hori baino gehiago gara. Ziurrenik, instituzioekin gauza bera gertatzen da⁴⁴. Ziur asko, ezagun egi-

43 .Ikus Aubenas-en eta Benasayag-en (2002) liburuaren izenburua: “Résister, c’est créer”

44 Instituzioen ustezko beharri buruz ikus Dussel (2004), Lópezen erantzuna (2004) eta María Belén Sopransi eta Verónica Velosok proposatutako eztabaida (2004).

ten zaizkigun erakunde-egituren beharra dugu (kontseiluak, auzokideen asanbladak, gobernu onerako batzarrak, etab.). Halere, edozein instituzionalizatze edo identitate-formetan dagoen balizko arriskua *izatea* eta *eratzea* bereiztearena da; *guk egiten dugu*-ren *existitzen dena*-rekiko mendekotasuna. Kontzeptu gisa, identitatea eta instituzioa *existitzen dena*-rengana zuzentzen dira; autodeterminazio sozialeranzko bultzada, aldiz, *guk egiten dugu* hori gailentzera bideratzen da. Zentzu horretan, kontseilu edo komuna-antolaketa-ren printzipioak (delegatuak berehala baliogabetzeko aukera, zapatisten “agindu obedituz” eta antzeko beste batzuk) forma horiek instituzioen aurkakoak direla ziurtatzen ahalegintzen dira, baina, jakina, arriskua beti hor dago. *Egitea izatearen* mendeko den gizartean, *izatea egitearen* mendeko izan dadin egindako edozein ahalegin, haizearen kontra etengabe borrokan aritzea da, non geldirik geratze hutsak atzera pausoa esan nahi duen beti.

Autodeterminazio sozialeranzko bulkada denbora eraldatzeko eta historiarengandik askatzeko borroka da. Autodeterminazioak identitateetatik askatzea dakar, instituzioetatik askatzea, oraina iraganaren determinaziotik askatzea, *egitea izatearen* mendekotasunetik askatzea. Horrek denbora haustea dakar, erlojuak tirokatzea. Kapitalismoaren denbora gugandik at dagoen denbora da, gure ekintzak neurtzen dituen, egiten duguna mugatzen duena. Gure bultzada gure *egiteak* mugarik izango ez duen gizarte bateranzkoa da, non denbora *egitearen* denbora izatera helduko litzatekeen, “*jendeak aukeratzen duenaren erritmo eta egitura moduan, soilik, existitzen*” den denbora bat (Gunn 1985). “*Askatasun osoz hautatutako ekintza eta proiektuen denborak*”, “*iraganetik orainera eta gerora daraman progresio homogeneo eta abstraktua*” ordeztuko luke (idem, ibid.).

Autodeterminazioranzko mugimendua historiarengandik aske den gizarte bateranzko bultzada da, ekintzak iraganeko muge-tatik aske izango diren gizarterantz: posthistoria baterantz (edo behar bada historiaurre baten azkena, historiaren hasiera, baina horri oso zentzu ezberdina emanaz), non ekintzak ez dituen iraganak determinatuko, baizik eta, oroz gain, ekintza horien ezau-garri nagusia etorkizunera zabalik egotea izango den.

Ez gara gizarte horretan bizi, aldiz, horrexen alde borrokatzen dugu. Autodeterminazioranzko mugimendua denbora homogeneoaren aurkako bultzada da, historiarengandik askatzeko indarra (oraina iraganaren zordun den zentzuan). Denbora homogeneoak *egitearen* denborara, alegia, bere eraldaketara, eramango gaituela sinesteak ez du zentzurik; iraganaren zordun den historia posthistoriara, alegia, historiaurre amaiera-automatikoki eramango gaituela pentsatzeak ere ez. Alde-rantziz, denbora homogeneoa eta historia aurredeterminatua, amildegira zuzenean garamatzaten autobideak dira, nondik gu, *lemming* gaixoak, gure hondamendirantz goazen aurreiku-sitako moduan salto eginez⁴⁵. Komunismoa ez da, orduan, historiaren goren maila edo burutzea, historiaren haustura baizik.

Horrek ez du iraganari uko egitea esan nahi (kapitalismoaren aurkako iraganeko borroka, kasu), baina bai hari itsatsi-ta bizitzeari, ezkerren eztabaidetan hain arrunt bilakatu den eran (adibidez, stalinismoaren etengabeko aitzakia, guztiaren esplikazio edo bihotzerre moduan). Onartu beharra dugu, kapitalismoaren aurkako iraganeko borroka denboraren aurka-

45 Sakon errotutako sineskeria bati buruzko aipamena, zeinak esaten duen, *lem-ming*-ek beren migrazioen azken pauso bezala, labar garaienetatik beren burua itsasora amiltzen duten, han itoz. (gaztelaniazko editorearen oharra).

ko borrokak ere izan zirela, *tabula rasa* bat sortzeko borrokak, historiaren *continuum*-aren aurkako kolpeak (cf. Tischler, 2004). Iraganak jarraipena du orainean, baina ez aurrera egiteko bidea erakusten duten kausa-kate segida moduan, eta, batik bat, ez tradizio moduan⁴⁶, musika moduan baizik, iradokizun-kaxa baten moduan, begiratoki dugun konstelazioa aldatzen den heinean itxuraldatzen diren borroka-konstelazioak bailiran⁴⁷. Borroka, orain lehen bezala, erabateko orainaren aldeko borroka da, non *izatea* ez den *eratzetik* banatzen: *egitearen* denboraren alde, non une bakoitza autodeterminazio momentu bat den; *tabula rasa* bat iraganaren mugetatik aske, baina dudarik gabe iraganeko ametsez betea, erredimitu gabeko iragana oraindik, baina historiaren amesgaiztotik askatua⁴⁸.

46 Ados Negriarekin (2002:120) hau baieztatzen duenean: “Behar duguna zera da, tradizioaren kritika politiko bat. Zapalkuntza tradizioan oinarritua dago”. Ikus baita ere Marxen (1984) *Luis Bonaparteren Brumarioaren 18a*: “Hildako belaunaldi guztien tradizioak, amesgaizto bailiren estutzen dituzte bizidunen garunak”.

47 Denbora eta borroka konstelazioez eztabaida interesgarri baterako, ikus Tischler (2005).

48 Ikus Vaneigem (1994: 231): “Historiaren ideologia batek xede bakarra du: jendeak historia egitea ekiditea”. Eta baita Stephen Dedalusek Joycen *Ulises*-en esaten duena: “Historia, esan zuen Stephenek, zeintarik iratzartu nahian nabilen amesgaizto bat da”.

Komunismoa, ikusezinerantz begirada

Posible al da, benetan, gizarte autodeterminatu bat, gizarte komunista bat? Ez dakigu. “Beste mundu bat posible da” esaten dugu, baina ez dakigu benetan hala izango den. Baina ez dio axolarik, gure argudioan ez du eraginik. Komunismoak (autodeterminazioak) ibai guztiak doazen itsaso gisa dirau, izar utopiko baten antzera, premia larri baten modura.

Komunismoa ibai guztiak isurtzen diren itsaso hori da. Autodeterminazioranzko bulkada ez da eslogan politiko bat, ezta sorkuntza akademiko bat ere; modu banaezinean autodeterminazioa ukatzen duen gizarte batean errotuta dago. Arrazoiketa ez da arautzailea, kontua ez da autodeterminazioagatik borrokatu behar dugula, baizik eta “ez, geure kabuz erabakiko dugu” esatea “zeuek egingo duzue” horretan esana edo emana dagoe-la. Oinarri hori izan ezean, komunismoaren edo iraultzaren ingu-

ruan ezin gaitzke luzaz aritu. Teoriaren lehenengo arazoa azenarioak jatearena da, begiak irekitzea, ikusezina ikustea⁴⁹.

Komunismoa izar utopikoa da: ez hor kanpoan dagoen izar bat, gure autodeterminazioaren ukapena ukatzearen esperientziatik abiatzen den izarra baizik, ukazio hori jarraitu beharreko izar gisa proiektatzen. Beste hitz batzuetan esanda, *oraindik ez*-aren egiazko izaera eta irudimenezko izaera da aldi berean. Autodeterminazioranzko bulkadaz egun dagoenaren aurka-eta-haratago mugitzearen inguruan hemen esan den guztia norabide baten zirriborro bat baino ez da izan. Ez da (eta ezin du izan) mapa bat, edozein egoeratan aplikatzeko arau multzoa⁵⁰. Ez dugu purutasuna aldarrikatzen. Autodeterminazioranzko bulkadak Estatuaren aurka-eta-haratago bultzatzen du; baina, bitartean, Estatuak izan bada, eta, ondorioz, berarekin nola jokatu erabakitzearen auzi korapilatsua dugu aurrean. Argi dago Estatuaren aurka-eta-haratago mugitu nahi dugula (Estatuak ez dela gizartea aldatzeko bidea), baina hori nola egin egoera zehatz bakoitzak erakutsiko du. Heine berean autodeterminazioranzko bulkadak beti bultzatzen du lanaren aurka-eta-haratago, baina bitartean biziraun egin behar dugu, eta horrek, gehienetan, lanaren esparruan jokatzea esan nahi du. Izar utopikoa itzalezina da, baina isurtzen dituen izpiek ez digute bidea erakusten. Urratzen ditugun bide bakarrak geuk oinez goazela urratzen ditugunak dira.

49 Egiaz, une jakin batean ikus dezakeguna borrokaren osotasunaren zatia da, baina teoriak ikus ahal denaren mugetara garamatza, begiak behartzera. Arazoa orduan da, teoriak ikusten duena benetan erreala den, edo gure irudimenean bakarrik dagoen, baina arazo hori teoria eta mugimenduaren arteko artikulazioaren bidez bakarrik konpon daiteke.

50 Teoriagilea ez da antzerki zuzendari bat, testu honen zirriborroen inguruan egindako aipamenetan Nika Sommereggerrek zioen moduan.

Komunismoa izar utopikoa da, baina hori baino gehiago ere bada. Ez da inspiratzen gaituen helmuga harrapaezina, premia larria da⁵¹. Ez da soilik praktika politikoa bideratzen duen jarrera⁵². Orain inoiz baino argiago ikusi da, kapitalismoaren agendan, gizateriaren autosuntsitzea agerikoa dela, eta, beharbada, hori ekiditeko modu bakarra gizartearen garapena geuk geuk determinatuko dugun gizarte bat, gizarte autodeterminatzailea, sortzea dela. Autodeterminazioranzko bulkada premiazkoa da, mendekotasunaren azalean pitzadurak bilatze amorratua, itxaropen ororen aurkako itxaropena⁵³.

Beharbada, oroz gain, komunismoa erantzunik gabeko galdera-olatuaren joan-etorria da, sortzeko dagoen mundua, komadun mundua, baina amaiera-punturik gabea

51 Ikus Eduardo Galeano ("Las palabras andantes", *Chiapas* aldizkarian aipatua, Mexiko, 13. zbk, 2002: 134): "Bera zerumugan dago -esaten du Fernando Birrik-. Bi pauso hurbiltzen naiz, bera bi pauso urruntzen da. Hamar pauso egiten ditut eta zerumuga hamar pauso atzerago dago. Ez du axola zenbat ibiltzen naizen, ez dut inoiz harrapatuko. Zertarako balio du utopiak? Horretarako balio du: ibiltzeko". Bai, baina zerumuga komunista hori baino askoz ere gehiago da.

52 Hau da Dusselek proposatzen duen marxismoaren interpretazioa, baina Marxen argudioaren indar kritikoa erabat ahultzen du.

53 Testu hau bateragarria al da *Mundua aldatu boterea hartu gabe* laneko argudioekin? Ez dakit. Ezetz espero dut. Ona litzateke azken urteetan zerbait ikasi dudala eta epilogo moduko testu hau ere, aurretik egindako lanaren aurka-eta-haratago mugitzen dela pentsatzea.

BIBLIOGRAFIA

- ADORNO, Theodor W. (1986) *Dialéctica negativa*. Madrid, Taurus.
- AGNOLI, Johannes (1999) *Subversive Theorie*. Friburgo, Alemania, Çaira Verlag.
- ALBERTANI, Claudio (2003) "Antonio Negri, *Imperio* y la extraña trayectoria del obrerismo italiano", *Bajo el Volcán* (Puebla, Mexiko), 6. zkia.
- ALMEYRA, Guillermo (2002) "El dificultoso no-asalto al no-cielo", *El Viejo Topo* (Barcelona), 178. zkia., 46-49 orr.* www.herramienta.com.ar webgunean ere eskuragai.
- AUBENAS, Florence eta Miguel BENASAYAG (2002) *Résister, c'est créer*. Paris, La Découverte.
- AUFHEBEN (2003) "Review: Change the World Without Taking Power" (Brighton, Erresuma Batua), 11. zkia. www.herramienta.com.ar webgunean ere eskuragai.
- BARTRA, Armando (2003) "La llama y la piedra: de cómo cambiar el mundo sin tomar el poder según John Holloway", *Chiapas* (Mexiko), 15. zkia., 123-141 orr.
- BENASAYAG, Miguel eta Diego SZTULWARK (2000) *Política y situación: de la potencia al contrapoder*. Buenos Aires, Ediciones De Mano en Mano.
- BENSÁID, Daniel (2003a) "La Révolution sans prendre le pouvoir? À propos d'un récent livre de John Holloway", *Contre Temps* (Paris) 6. zkia., Otsaila, 45-59 orr.* www.herramienta.com.ar webgunean ere eskuragai. (2003b) "Cris et crachats", *Contre Temps* (Paris) 8. zkia., Iraila, 170-173 orr.*
- BERTINOTTI, Fausto (2004) Europako Foro Sozialean (London, 2004/10/16) egindako hitzaldia. Italiarazko jatorrizkoa www.rivis-tadireligione.it webgunean eskuragai.
- BONEFELD, Werner (2004) "El principio esperanza en la emancipación humana: acerca de Holloway", *Herramienta* (Buenos Aires), 25. zkia., Apirila, 197-207 orr. (2003) "The Capitalist State: Illusion and Critique", in *Revolutionary Writing*. New York, Autonomedia. (2005) eta Kosmas PSYCHOPEDIS, *Human Dignity*. Aldershot, Erresuma Batua, Ashgate. (2003) eta Sergio TISCHLER (ed.) *What is to be done? Leninism, Anti-Leninist Marxism and the question of Revolution today*. Aldershot, Erresuma Batua, Ashgate.
- BONNET, Alberto (2005) "Hopeful voyage, unexpected port of arrival?", *Capital & Class* (London), 85. zkia. (2003) "Micropolíticas posmodernas, malgré John", argitaratugabea.
- BORON, Atilio (2005) "Holloway on power and the 'state illusion'", *Capital & Class* (London), 85. zkia. (2003) "Poder, contrapoder y antipoder. Notas sobre un extravío teórico-político en el pensamiento crítico contemporáneo", *Chiapas* (Mexiko), 15. zkia., 143-162 orr.*
- CALLINICOS, Alex (2005) "Sympathy for the devil? John Holloway's Mephistophelian", *Capital & Class* (London), 85. zkia. (2003) "How do we Deal with the State?" *Socialist Review* (London), 272. zkia., Martxoa, 11-13 orr.
- CENTRO RODOLFO GHIOLDI (2002) *Nominalismo, freudomarxismo y dialéctica diádica en el pensamiento de John Holloway*. Buenos Aires, s/d. www.herramienta.com.ar webgunean ere eskuragai.

- COLECTIVO SITUACIONES (ed.) (2001) *Contrapoder: una introducción*. Buenos Aires, Ediciones De Mano en Mano. (2002) eta MTD DE SOLANO *La hipótesis 891. Más allá de los piquetes*. Buenos Aires, Ediciones De Mano en Mano.
- CRUZ BERNAL, Isidoro (2002) "Elegante manera de hacerse el distraído", *Socialismo o Barbarie* (Buenos Aires), 11. zkia., Maiatza.
- DE ANGELIS, Massimo (2005) "How?! An Essay on John Holloway's *Change the World without Taking Power*", *Historical Materialism* (London), s/d.
- DEL ROIO, Marcos (2004) "O Problema do Poder na Revolução: Diálogo com John Holloway", *Novos Rumos*, (Sao Paulo, Brasil), 42. zkia. Gaztelaniaz: "El problema del poder en la revolución: diálogo con John Holloway", *Herramienta*, (Buenos Aires), 28. zkia., Martxoa 2005, 113-127 orr.
- DRI, Rubén (2002) "Debate sobre el poder en el movimiento popular", *Retruco* s/d. www.herramienta.com.ar webgunean ere eskuragai.
- DUSSEL, Enrique (2004) "Diálogo con John Holloway. Sobre la interpelación ética, el poder, las instituciones y la estrategia política", *Bajo el Volcán* (Puebla, Mexiko), 8. zkia. Baita *Herramienta* (Buenos Aires), 26. zkia. Uztaila, 137-151 orr.
- FERNANDEZ BUEY, Francisco (2003) "¿Cambiar el mundo sin tomar el poder?", *El Viejo Topo* (Barcelona), 178. zkia., 35-40 orr. Baita *Bajo el Volcán* (Puebla, Mexiko), 6. zkia., 27-36 orr. Eta *Herramienta* (Buenos Aires), 22. zkia., 185-190 orr.
- FIGUEROA, Carlos (2003) "Pensando de nuevo la revolución, pensando de nuevo al marxismo", *Bajo el Volcán* (Puebla, Mexiko), 6. zkia., 59-70 orr.
- GALEANO, Eduardo (2002) "Las palabras andantes", aipamena: *Chiapas*, (Mexiko), 13. zkia. Uztaila, 134. orr.
- GEGENANTIMACHT (2004) "Somos autonomistas, pero somos más que eso... Un profesor de México nos habla desde el alma", *Herramienta*, (Buenos Aires), 26. zkia., Uztaila, 127-136 orr.
- GONZALEZ, Mike (2003) "Crying out for revolution", *International Socialism Journal* (London), 99. zkia., 133-138 orr.
- GRESPAN, Jorge (2004) "Um convite a discutir", *Margem Esquerda* (Sao Paulo), 3. zkia. 178-186 orr.
- GUNN, Richard (1985) "The only real Phoenix: Notes on Apocalyptic and Utopian Thought", *Edinburgh Review* (Edinburgo), 71. zkia.
- HARDT, Michael eta Antonio NEGRI (2002) *Imperio*, Buenos Aires, Paidós.
- HEARSE, Phil (2003) "Change the world without taking power?", *IV Online magazine*, IV. Zkia, 355, Abendua. www.internationalviewpoint.org webgunean ere eskuragai.
- HIRSCH, Joachim (2003) "Macht und Anti-Macht: Zu John Holloways Buch *Die Welt verändern, ohne die Macht zu übernehmen*", *Das Argument* (Berlin), 249. zkia., 45. bol., 34-40 orr. Gaztelaniaz *Cuadernos del Sur* (Buenos Aires), 35. zkia. Maiatza 2003.* www.herramienta.com.ar webgunean ere eskuragai.
- HOLLOWAY, John (2006) *Contra y más allá del capital. Reflexiones a partir del debate sobre el libro "Cambiar el mundo sin tomar el poder"*. Buenos Aires, Herramienta; Universidad Autónoma de Puebla (Puebla, Mexiko). (2004a) *Clase=Lucha*. Buenos Aires, Ed. Herramienta y Universidad Autónoma de Puebla (Mexiko). (2004b) "Power and Democracy: More than a Reply to Michael Löwy", *New Politics* (New York), 36. zkia. 138-141 orr.

- (2003a) "Die Drückerei der Hölle. Eine Anmerkung in Antwort auf Joachim Hirsch", *Das Argument* (Berlin), 250. zkia. 219-227 orr. Gaztelaniaz www.herramienta.com.ar webgunean ere eskuragai.
- (2003b) "Conduis ton char et ta charrue par-dessus les ossements des morts", *Contre Temps* (Paris), 8. zkia. 160-169 orr. Gaztelaniaz www.herramienta.com.ar webgunean ere eskuragai.
- (2003c) "Intercambio entre Michael Löwy y John Holloway", *Bajo el Volcan* (Puebla, Mexiko), 6. zkia. 13-26 orr. www.herramienta.com.ar webgunean ere eskuragai.
- (2003d) "El árbol de la vida: una respuesta a Sergio Rodríguez", *Rebeldía* (Mexiko), 13. zkia. 13-16 orr. *Eta Herramienta* (Buenos Aires), 24. zkia. 167-171 orr.
- (2003e) "La renovada actualidad de la revolución. Respuesta a Aldo Romero", *Herramienta* (Buenos Aires), 22. zkia. 173-176 orr.
- (1998) eta Eloína PELÁEZ *Zapatista! Reinventing Revolution in Mexico*. London, Pluto Press.
- HUDIS, Peter (2003) "Rethinking the idea of revolution", *News & Letters* (Chicago), Urtarrila-Otsaila.
 - HUERTA, Enrique (2004) "La filosofía política y los múltiples espejos del zapatismo", s/d
 - IMHOFF, Werner (2004) "Ein heilloser (?) Fall von Formblindheit", www.herramienta.com.ar webgunean eskuragai.
 - JOYCE, James (1984) *Ulyses*, J.M. Valderderen itzulpena. Barcelona, Seix Barral.
 - KLOPOKTEK, Felix (2003) "Holloways Mittelweg. John Holloway versucht die Synthese aus Wertformanalyse und Globalisierungskritik", *Jungle World*, 17. zkia. www.jungle-world.com webgunean ere eskuragai.
 - KRANIAUSKAS, John (2002) "Revolution is Ordinary", *Radical Philosophy* (Kent, Erresuma Batua), 115. zkia. Iraila-Urria, 40-42 orr.
 - LEBOWITZ, Michael (2005) "Holloway's Scream: Full of Sound and Fury", *Historical Materialism* (London), 13/4 zkia.
 - LENIN, Vladimir I. (1975) [1902] "¿Que hacer?", in *Obras escogidas II*, Moscú, Ed. Progreso.
 - LONDON EDINBURGH WEEKEND RETURN GROUP (LEWRG) (1979) *In and Against the State*. London, CSE Books; berrik. London, Pluto (1980).
 - LÓPEZ, Nestor (2004) "Discrepando con Dussel", *Herramienta*, (Buenos Aires), 27. zkia., Urria, 143-150 orr.
 - LORENZANO, Luis (1998) "Zapatismo: Recomposition of Labour, Radical Democracy and Revolutionary Project, in HOLLOWAY eta PELÁEZ, *Zapatista! Reinventing Revolution in Mexico*, London, Pluto Press.
 - LÖWY, Michael (2004) "John Holloway, Change the world without taking power", *New Politics* (New York), 35. zkia. (2003) "Intercambio entre Michael Löwy y John Holloway", *Bajo el Volcán* (Puebla, Mexiko), 6. zkia., 13-26 orr. * www.herramienta.com.ar webgunean ere eskuragai.
 - LUKÁCS, Geörgy (1985) *Historia y conciencia de clase*, M. Sacristanen itzulpena. Madrid, Sarpe.
 - McLAREN, Peter (2003) *Marxism Digest*-en eskuhartzea (s/d) ekaina
 - MANZANA, Ernesto (2003) "Un buen intento con un magro resultado", www.herramienta.com.ar webgunean eskuragai.
 - MARSHALL, Barry (2002) "Change the World Without Taking Power: The Meaning of Revolution Today", www.herramienta.com.ar webgunean eskuragai.
 - MARX, Karl (2000) [1864] *El capital. Crítica de la economía política*, W. Rocesen itzulpena. Mexico, Fondo de Cultura Económica.

- (1974) [1851-1852] eta Friedrich ENGELS, "El dieciocho Brumario de Luis Bonaparte", in MARX y ENGELS, *Obras escogidas I*. Moscú, Ed. Progreso, 404-498 orr.
- (2005) [1845-1846] "La ideología alemana (I), in MARX y ENGELS, *La ideología alemana y otros escritos filosóficos de Karl Marx*, J. Vergara-aren itzulp. Madrid, Ed. Losada.
- (1974) [1848] eta Friedrich ENGELS, "Manifiesto del Partido Comunista", in MARX y ENGELS, *Obras escogidas I*. Moscú, Ed. Progreso.
- MATHERS, Andrew eta Graham TAYLOR (2005) "Contemporary Struggle in Europe: Anti-Power or Counter-Power?", *Capital & Class* (London), 85. zkia.
 - MATTINI, Luis (2003) "Autogestión productiva y asambleismo", *Cuadernos del Sur* (Buenos Aires), 36. zkia. 102-109 orr.
 - MÉNDEZ, Andrés (2003) "Tomar el poder, no: construir el contrapoder", *Herramienta* (Buenos Aires), 22. zkia. 177-183 orr.
 - NEGRI, Antonio (2002) *Du Retour: Abécédaire biopolitique. Entretiens avec Anne Dufourmantelle*. Paris, Calmann-Lévy.
 - PALOMINO, Héctor (2005) "Trabajo y movimientos sociales en Argentina hoy", *Herramienta* (Buenos Aires), 27. zkia. Urria, 73-86 orr.
 - RAJCHENBERG, Enrique (2003) "John y la identidad", www.herramienta.com.ar webgunean eskuragai.
 - REITTER, Karl (2003) "Wo wir stehen", *Grundrisse* (Viena), 6. zkia. 13-27 orr.
 - RODRIGUEZ, Sergio (2003) "¿Puede ser verde la teoría? Si, siempre y cuando la vida no sea gris", *Rebeldía* (Mexiko), 8. zkia. 9-17 orr. Baita ere *Herramienta* (Buenos Aires), 24. zkia. 155-165 orr.
 - ROMERO, Aldo (2002) "El significado de la revolución hoy", *Herramienta* (Buenos Aires), 21. zkia. 173-175 orr.
 - ROOKE, Mike (2002) "The Limitations of Open Marxism", *What Next* (London), s/d.
 - ROUX, Rhina (2003) "Dominación, insubordinación y política. Notas sobre el grito de Holloway, *Bajo el Volcán* (Puebla, Mexiko), 6. zkia. 37-57 orr.
 - SCHILLER, Margrit (2001) *Es war ein harter Kampf un meine Erinnerung. Ein Lebensbericht aus der RAF*. Munich, Piper.
 - SEIBERT, Thomas (2004) "Welt-Veränderung-Macht. John Holloway und Thomas Seibert im Gespräch" *Arranca!* (Berlin), 30. zkia. 9-13 orr.
 - SMERIGLIO, Massimiliano (2004) *Mundua aldatu boterea hartu gabe* liburuaren italerazko edizioaren aurkezpenean eginiko mintzaldia, Erroma 2004/03/19 www.arcoiris.tv webgunean ikusgai bideoan.
 - SMITH, Cyril (2002) "Antipoder versus poder", *Herramienta* (Buenos Aires), 21. zkia. 164-168 orr.
 - SOPRANSI, María Belén eta Verónica VELOSO (2004) "Contra la subjetividad privatizada: la creación de lo colectivo", *Herramienta* (Buenos Aires), 27. zkia. Urria, 87-105 orr.
 - STOETZLER, Marcel (2005) "On how to make Adorno scream: John Holloway's concept of Revolution against Class and Identity", *Historical Materialism* (London), 13/4 zkia.
 - TARIQ, Ali (2004) "Tomar el poder para transformar el mundo (aún en pequeñas dosis)", elkarrizketa, www.redvoltage.net webgunean eskuragai.
 - THWAITES REY, Mabel
(2004) *La autonomía como búsqueda, el Estado como contradicción*. Buenos Aires, Prometeo.
(2003) "La autonomía como mito y posibilidad", *Cuadernos del Sur* (Buenos Aires), 36. zkia. 87-101 orr.
 - TISCHLER, Sergio (2005) "Tiempo de reificación y tiempo de insubordinación", *Bajo el Volcán* (Puebla, Mexiko), 7. zkia. 121-137 orr. Baita ere *Herramienta* (Buenos Aires), 25. zkia. Apirila, 123-134 orr.

- VANEIGEM, Raoul (1994) *The Revolution of Everyday Life*. London, Rebel Press, Left Bank Books.
- VEGA CANTOR, Renán (2003) "La historia brilla por su ausencia", *Herramienta* (Buenos Aires), 22. zkia. 191-196 orr.
- WAINWRIGHT, Hilary (2003) *Reclaim the State*. London, Verso.
- WILDCAT (2003) "Der Schrei und die Arbeitklasse", *Wildcat-Zirkular* (Berlin), 65. zkia. 48-54 orr.
- WRIGHT, Chris eta Suprina HAWKINS (2002) "Change the World without taking Power", www.herramienta.com.ar webgunean eskuragai.
- ZIBECHI, Raúl (2003) *Genealogía de la revuelta. Argentina: la sociedad en movimiento*. La plata (Argentina) eta Montevideo, Letra Libre eta Nordan Comunidad.

*Testu hauek hemen ere eskuragarri:

HOLLOWAY, John (2006) *Contra y más allá del capital. Reflexiones a partir del debate sobre el libro "Cambiar el mundo sin tomar el poder"*. Buenos Aires, Herramienta; Universidad Autónoma de Puebla (Puebla, Mexiko).